



**Foru Dekretu proiektua, zeinaren bidez garatzen baitira kriptoaktibo zerbitzuen hornitzaile jakin batzuek egoki jarduteko bete behar dituzten arauak eta dagozkien informazio obligazioak, eta bi xedapen hauek aldatzen baitira: Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, eta azaroaren 29ko 25/2016 Foru Dekretua, finantza kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatu eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duena.**

I

Foru dekretu hau, funtsean, garatzera dator, erregelamendu bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean (aurrerantzean, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan (aurrerantzean, urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua) sartu diren aldaketak, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia apirilaren 29ko 3/2025 Legeak Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean sartu dituen aldaketetara egokitu eta beste zerga aldaketa batzuk onesten dituen .....aren ....(e)ko .../2025 Foru Arauan jasotakoak (aurrerantzean, .....aren ....(e)ko .../2025 Foru Araua).

Aldaketa horien artean, nabarmentzekoak dira, bereziki, Kontseiluaren 2023ko urriaren 17ko (EB) 2023/2226 Zuzentarauaren transposiziotik eratorritakoak. Izan ere, Zuzentaru horrek 2011/16/EB Zuzentaru aldatu du, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa (DAC 8, aurrerantzean), eta foru dekretu honetan haren garapen normatiboa jorratzen da (garapen hori du xede nagusi).

II

Ordainketa eta inbertsio digitalen bitarteko alternatiboak gero eta gehiago erabiltzeak berekin ekarri du finantza esparru arautzaile bat onestea Europar Batasunaren barruan aplikatzeko. Esparru hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 31ko (EB) 2023/1114 Erregelamendua da nagusiki –2023/1114 Erregelamendua, kriptoaktiboen merkaturari buruzkoa, 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) Erregelamendua eta 2013/36/EB eta 2019/1937EB zuzentaruak aldatzen dituen (aurrerantzean, MiCA Erregelamendua)–. Era berean, lankidetzaren administratiboaren alorrean, DAC 8 Zuzentaruari eman zaio onespena, eta haren helburua da bitarteko alternatibo horiek zerga ihesaren ikuspuntutik planteatzen dituzten arrisku berriei aurre egitea, estatu kideetako Zerga Administrazioen esku bitarteko horiei buruzko informazioa jarriz. Zehazki, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB



Zuzentarauaren esparruan –fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzko zuzentaraua, 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena (DAC, aurrerantzean)– kriptoaaktiboak, diru elektronikoa eta banku zentraletako diru digitalak sartu dira. Era berean, DACaren xedapen batzuk indartzen dira, estatu kideetako zerga administrazioek jasotzen duten informazioa zehatzagoa izan dadin eta erabilera eraginkorrago bat izan dezan.

Horrela, alde batetik, DAC 8 Zuzentarauak finantza-kontuen arloan lehendik dauden informazio-betebeharrak zabaltzen ditu, fiskalitatearen arloan informazioa modu automatikoan trukatzeko derrigortasunari dagokionez 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko Zuzentarauak txertatutakoak, eta berariaz txertatzen ditu diru elektronikoa eta banku zentralen diru digitala bere xede-esparruan, baita kontuen eta titularren xehetasun berriak ere, Batasunaren eremura eramanez Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (aurrerantzean, ELGA) informazioa komunikatzeko estandar komunean («Common Reporting Standard» edo CRS) egindako aldaketak.

Bestetik, DAC 8 Zuzentarauak informazio-betebehar berriak, egoki jarduteari dagokionak eta, hala badagokio, erregistrokoak txertatzen ditu kriptoaaktibo-zerbitzuen hornitzaile jakin batzuentzat; horrela, haien erabilzaileei eta egiten dituzten eragiketei buruzko informazioa eman beharko dute. Halaber, Batasunaren esparrura eramaten da kriptoaaktiboari buruzko informazio-trukearen ELGaren esparrua («Crypto-Asset Reporting Framework» edo CARF).

Horri dagokionez, nabarmentzekoa da ELGak Agintaritzaren Eskudunarentzako Akordio Ereduari eta informazioa komunikatzeko estandar komunari eta Agintaritzaren Eskuduntzarentzako Akordio Ereduari eta kriptoaaktiboari buruzko informazio-trukearen esparruari egindako lruzkinen garrantzia; DACek ilustrazio- edo interpretazio-iturri gisa hartzen ditu (aurrerantzean, lruzkinak).

Nazioartean, kriptoaaktiboari buruzko informazio-trukea eta finantza-kontuei buruzko informazioaren arloko aldaketak babesten dituzten tresna juridikoak hitzartu ditu Batasuneko kide ez diren herrialdeekin.

DAC 8 Zuzentaraua barneratzeko eta, aldi berean, foru arauaren mailako araua behar duten gaiei dagokien informazioa trukatzeko nazioarteko estandarrak txertatzeko helburuz, aldatu egin da martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, .../2025 Foru Arauaren bidez.

### III

Aurrez adierazi den bezala, foru dekretu honen helburu nagusia da DAC 8 Zuzentarauaren transposizioa osatzea, erregelamendu bidezko arau-garapena eskatzen baitu. Hala, kriptoaaktibo-zerbitzuen hornitzaileentzako eta kriptoaaktiboaren operadoreentzako informazio-betebeharrak eta egoki jarduteko arauak garatzen ditu, eta kriptoaaktiboaren operadoreen erregistroari dagokionez beharrezko aldaketak egiten ditu zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan, eta finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko



betebeharra ezartzen duen azaroaren 29ko 25/2016 Foru Dekretuan. Hori guztia, behar diren aitorten-ereduak onetsi eta aldatuko dituen foru aginduari kalterik egin gabe.

Foru dekretu honetan eta azaroaren 29ko 25/2016 Foru Dekretuan egiten diren aldaketetan aurreikusten den arau-garapenak DAC 8 Zuzentarauaren edukia jasotzen du, kriptoaikiboei eta finantza-kontuei buruzko informazio-betebeharrei dagokienez, eta ez da mugatzen zuzentarauaren manuak besterik gabe barneratzera, baizik eta berariaz jasotzen ditu lruzkinetan aurreikusten diren xedapen batzuk, duten garrantzi material eta argigarria dela eta. Halaber, foru dekretu honetako xedapenek aintzat hartzen dituzte Gardentasunari eta Informazioa Zerga Xedez Trukatzeari buruzko Foro Globalak informazioa trukatzeko bi estandarrak (CRS eta CARF) lege ezartzeari dagokionez ezartzen dituen exijentziak.

Zerga-administrazioari foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera ematen zaion informazioa Europar Batasuneko kide diren gainerako estatuei jakinaraziko zaie, eta beste hirugarren herrialde batzuekin trukatzeko da, datu pertsonalen babeserako araudiari jarraikiz.

Foru dekretu hau honela egituratuta dago: zortzi artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat, sei azken xedapen eta eranskin bat.

#### IV

1.tik 8.era bitarteko artikuluek kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileek eta kriptoaikiboen operadoreek haien erabiltzaileekin eta, hala badagokio, entitateak diren erabiltzaileak kontrolatzen dituzten pertsonekin egoki jarduteko arauak arautzen dituzte, bai eta zerga-administrazioari informazioa emateko betebeharrak ere.

Egoki jarduteko arauari dagokienez, nabarmentzekoa da kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileek eta kriptoaikiboen operadoreek nahitaez eskuratu behar dutela haien erabiltzaileen aitorten bat, non, besteak beste, haien egoitza fiskala (edo egoitza fiskalak) jaso behar den.

Informazio-betebeharrei dagokienez, lehenik eta behin, informazio-loturak ezartzen dira; horien bitartez, kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileak eta kriptoaikiboen operadoreak behartuta daude Espainiako zerga-administrazioari informazioa jakinaraztera. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da Espainian eskumena duen agintaritzak MiCA Erregelamenduari jarraikiz baimendutako kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileak behartuta egongo direla aitortena Espainian egitera. Hori izanik bis erakargarri indartsuagoa eragiten duen lotura, aipatutako erregelamenduaren arabera baimenduta ez dauden kriptoaikiboen operadoreentzako beste informazio-lotura batzuk ezartzen dira, hierarkia-arau batzuk barne, jurisdikzio batean baino gehiagotan hainbat lotura baldin badaude; era horretan, informazioa emateko betebeharrean bikoiztasunak gertatzea saihesten da. Gainera –eta kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaile eta kriptoaikiboen operadore guztiei aplikatuko zaie hau–, Espainian sukurtsal bat izateak behartu egingo ditu Espainiako zerga-administrazio eskudunari sukurtsal horren bitartez egiten diren eragiketen berri ematera.



Eman beharreko informazio zehatzari dagokionez, hor sartuko litzateke erabiltzailearen eta, erabiltzailea entitate bat den kasuetan, kontrolaz arduratzen diren pertsonen identifikazioa, haien egoitza fiskala (edo egoitza fiskalak barne), bai eta erabiltzaile horiek kriptoa-aktiboekin egindako eragiketak ere. Eragiketei buruzko informazioa modu erantsian emango bada ere, bereizi egingo dira eragiketa-mota ezberdinak, kontraprestazioaren arabera eta eskuratzeko, eskualdatzeko edo transferentziak diren kontuan hartuta.

Foru dekretuaren eranskinean, dekretuan komatxo artean erabilitako terminoen definizioak jasotzen dira.

## V

Foru dekretu honek, bere xedapen indargabetzaile bakarrean, ezabatu egiten du zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko 48 ter artikulua, diru birtualarekin egiten diren eragiketei buruz informatzeko betebeharra garatzen duena. Halaber, xedapen iragankor bakarrean, argitzen da diru birtualarekin egindako eragiketei buruz informatzeko betebeharrak 2025. urtean egindako eragiketei dagokienez bete behar direla.

## VI

Lehenik eta behin, DAC 8 Zuzentarauak kriptoa-aktiboaren operadore deritzenei ezartzen dizkien erregistro-betebeharren ondorioz –operadore horiek dira kriptoa-aktibo-zerbitzuen hornitzaileen finantza-agintarien erregistroan ez daudenak, MiCA Erregelamenduaren aplikazio-eremutik kanpo gelditzeagatik–, beharrezkoa da kriptoa-aktiboaren operadoreentzako erregistro espezifiko bat aurreikustea, baita erregistroko altak, aldaketak eta bajak arautzea ere.

Erregistro horretako informazioa eskuragarri egongo da Batasuneko kide diren estatu guztietako agintaritzak eskudunentzat, Europar Batasunaren dagokion erregistroaren bitartez. Horri dagokionez, eta Europako Batzordearen betearazpen-egintzetan ezartzen diren baldintzetan, zerga-administrazioak kriptoa-aktiboaren operadoreentzako Batasuneko erregistro bakarraren funtzionamendua bermatzeko beharrezko aldaketak egin ahal izango ditu; izan ere, gerta liteke hornitzaile horien inguruabarrak aldatzea eta, ondorioz, Espainian informazioa komunikatzeari uztea.

Bestetik, XX/2025 Foru Arauak urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriko 6. apartatuan eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren hamaikagarren xedapen gehigarriaren f) letran, hurrenez hurren, diru birtualen saldoei buruzko informazio-betebeharrei eta atzerrian kokatutako diru birtualei dagokienez egindako aldaketen ondorioz, beharrezkoa da zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 48 bis eta 54 bis artikulua aldatzea.

Diru birtualen saldoei buruz informatzeko betebeharrari dagokionez, nabarmentzekoa da diru birtual kontzeptuaren ordez kriptoa-aktiboaren erabiltzen dela, urtarrilaren 17ko 3/2024 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriko 6. apartatuan egindako aldaketarekin bat etorritik, eta komunikatu beharreko saldoak dituzten kriptoa-aktiboak zein diren zehazten da. Zehazki, informatu beharreko kriptoa-aktiboak dira DAC 8 Zuzentarauaren transposizioaren ondorioz kriptoa-aktiboari buruz informatzeko betebeharrak.



berriaren ondorioetarako informatzekoak diren kriptoahtiboak. Horrekin, kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileek kriptoahtibo berberei dagozkien bi betebeharrak (kasu batean, saldoei buruzko informazioa, eta bestean, eragiketei buruzkoa) bete ditzaten lortu nahi da, era horretan bi betebeharrak bateratuz eta administrazio-karga gehigarriak saihestuz.

Atzerrian kokatutako diru birtualei buruz informatzeko betebeharrari dagokionez, halaber, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren hamaikagarren xedapen gehigarriko f) letran egindako aldaketekin bat etorriz, diru birtualaren kontzeptuaren ordez, kriptoahtibo kontzeptua erabiltzen da. Saldoei buruz informatzeko betebeharrean mugaketa bat egiten da; kasu honetan, ordea, kontuan izanda informatzeko betebeharra mugatzen duen atalase kuantitatibo bat dagoela eta kasu batzuetan zaila izan daitekeela kriptoahtibo mota ezberdinak bereiztea, obligaziodunak kriptoahtibo guztien berri eman beharko du, ezarritako baldintzetan. Bestalde, ezartzen da kriptoahtiboak atzerrian kokatutzat joko direla haien zaintza egiten duen entitate edo establezimendu iraunkorrek ez duenean jaso jarduteko baimenik Espainiako agintaritzak eskudunetik edo Zerga Administrazioak kriptoahtiboen operadoreei buruz duen Erregistroan inskribatuta ageri ez denean.

Hirugarrenik, eta hau ere DAC 8 Zuzentarauaren transposizioaren esparruaren barruan, beharrezkoa da zentzu bikoitzean aldatzea planifikazio fiskaleko mekanismo jakin batzuen informazio-betebeharraren araubidea –DAC 6 izenarekin ezaguna–, DAC 8 Zuzentarauak araubide horretan egindako aldaketaren transposizioa egiteko eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (EJJA) orain dela gutxiako jurisprudentziara egokitzeko. Jurisprudentzia hori 2022ko abenduaren 8ko –C-694/20 gaia) eta 2024ko uztailaren 29ko –C-623/22 gaia– Epaietan oinarritzen da. Azkeneko epai horretan, auzitegiak erabaki du honako hauei soilik aitortzen zaiela sekretu profesionalaren betebeharraren ondorioz informazioa emateko dispensa: bitartekariei, hots, abokatuak edo zuzenbide nazionalaren arabera organo juridikzionalen aurrean epaiketan ordezkari izateko gaituta dauden bestelako profesionalak. Aldi berean, adierazten du sekretu profesionalaren erabilera bezeroei soilik jakinaraztea zentzu hertsian abokatuak diren bitartekariei bakarrik eskatzen zaiela, baina ez epaiketan, abokatu izan gabe, legezko ordezkari izan daitezkeenei. Azkenik, bezero kontzeptuak ondorio horretarako duen definizioa jasotzen da.

Laugarrenik, IFZa baliogabetzeko kausa gisa aurreikusten da kriptoahtiboen operadore batek kriptoahtiboen gainean informatzeko duen betebeharra betetzen ez duenerako aurreikusitako kautelazko baja.

Azkenik, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bitartez onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduaren 9. artikulua aldatzen da, mugaz gaindiko ondorioak dituzten zerga kontsultei dagokienez, bi helbururekin: alde batetik, kontsulta egiten duen pertsona fisikoak adieraz dezan kontsulta –zerga-ondorioetarako– bere bizilekuari buruzkoa den, DAC 8 Zuzentarauak txertatutako mugaz gaindiko eragina duen aurretiazko akordioaren kontzeptu berria kontuan hartuta; eta, bestetik, beste estatu batean bizi direnean, eskaera horrek kontsultatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia jaso dezan, eta bere egoitza dagoen estatuak esleitutako kontsultaren eraginpean egon daitezkeen beste pertsona batzuenak.



## VII

Halaber, foru dekretu honek, azken xedapenetako hirugarrenean, finantza- kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 29ko 25/2016 Foru Dekretuan ere zenbait aldaketa egiten ditu.

Aipatutako aldaketak ere DAC 8 Zuzentarauaren transposizioaren ondorio dira, zeinak eguneratu egiten baititu elkarlaguntzaren esparruko finantza-kontuei dagozkien informazioa eta egoki jarduteko betebeharrak, informazioa komunikatzeko betebeharra duten kontuei buruzko informazio gehigarria eskatuz eta banku zentralen diru digitalei eta diru elektronikoiari buruzko informazioa jakinaraztera behartuz.

## VIII

Azkenik, azken xedapenetako laugarrena Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzeari buruzkoa da, azken xedapenetako bosgarrenak foru dekretu honetan ezarritakoa garatzeko araudia gaitzen da, eta azken xedapenetako seigarrenak xedatzen du noiz jarriko den indarrean.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

# XEDATZEN DUT

## 1. artikulua. Xedea.

1. Foru dekretu honen xedea da arautzea zer betebeharrak dituzten «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo zerbitzuen hornitzaileek» ondoren aipatzen diren xedapenak aintzat hartuta: Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa, zeinaren bidez 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen baita (8 bis quinquies artikulua eta VI. eranskina) – zuzentarau hori Kontseiluaren 2023ko urriaren 17ko 2023/2226 (EB) Zuzentarauak aldatu zuen–; informazio truke automatikoari dagokionez Agintari Eskudunen artean izenpetutako Akordio Multilateralra, kriptoahtiboari buruzko informazio trukearen esparruan aplikatzen dena; Espainiak informazioa trukatzeko helburu bereberekin sinatzen dituen nazioarteko bestelako akordioak; eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hogeita bigarren xedapen gehigarria.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hogeita bigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren betebeharrak dagokienez foru dekretu honetan eta beraz garatzeko araudian erabiltzen diren terminoek dekretu honen eranskinean jasotzen den esanahia izango dute, araudiak bestelakorik ezartzen ez badu behintzat, aintzat hartuta, betiere, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauak, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoak, zeinaren bidez 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen baita, VI. eranskinean xedatutakoa, eta informazio truke automatikoari dagokionez



Agintari Eskudunen artean izenpetutako Akordio Multilateralra, kriptoaktiboei buruzko informazio trukearen esparruan aplikatzen dena.

## **2. artikulua. Eremu subjektiboa.**

1. Foru dekretu honen eranskinetako B apartatuan ezarritako moduan definitutako «informazioa jakinaraztera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaileek» bete beharko dituzte foru dekretu honetan jasotzen diren egoki jarduteko arauak eta informazioa jakinarazteko betebeharrak.

2. «Informazioa jakinaraztera behartuta dauden kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile» diren «kriptoaktiboen operadoreek» bete beharreko erregistro-betebeharrak zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan –abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretu bidez onetsi zena– horri dagokionez ezarritako arauketaren bitartez eraenduko dira, nahiz eta arauketa horretan erabilitako terminoek foru dekretu honen 1.2 artikuluan aurreikusitako esanahia izan.

## **3. artikulua. Egoki jarduteko arauak.**

1. Egoki jarduteko arautzat joko dira «informazioa jakinaraztera behartuta dauden kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaileek» «kriptoaktiboen erabiltzaileei» eta, «kriptoaktiboen erabiltzaile diren entitateen» kasuan, «kontrola gauzatzen duten pertsonen» buruzko informazioa eskuratzera, egiaztatzerara eta zehaztera bideratutako jarduketak.

2. «Informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile» bat «finantza-erakunde» bat ere baldin bada, hainbat finantza-konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta, elkarlaguntzaren esparruan, haien inguruko informazioa emateko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskinaren, IV. eta VI. sekzioen arabera jarraitutako egoki jarduteko arauetan oinarritu ahal izango da, foru dekretu honetan aurreikusten diren egoki jarduteko arauen ondoreetarako. «Informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile» bat aurrez, beste helburu fiskal batzuekin, eskuratutako aitorten batean ere oinarritu ahal izango da, baldin eta aitorten horrek foru dekretu honen 6. artikuluan ezartzen diren eskakizunak betetzen baditu.

3. «Informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile» batek hirugarren bat balia dezake foru dekretu honetan arautzen diren egoki jarduteko arauak betetzeko. Hirugarren batek egoki jarduteari buruzko arauak betetzeak inola ere ez du salbuetsiko hornitzailea egoki jarduteari dagozkion bere betebeharren erantzukizunetik.

4. Ez da derrigorrezkoa izango «kriptoaktiboen erabiltzaile den entitate» baten «kontrola egiten duen pertsonak» daudela zehaztea, entitate hori «persona baztertua» edo «entitate aktiboa» baldin bada.

## **4. artikulua. «Kriptoaktiboen erabiltzaile diren pertsona fisikoek» egoki jarduteko arauak.**

1. «Kriptoaktiboen erabiltzaile den pertsona fisiko» bat «informazioa jakinarazteko betebeharra duen erabiltzailea» den zehazteko, «kriptoaktiboen erabiltzaile diren pertsona fisikoen» eta zerbitzuen arteko harremana ezartzerakoan edo, «lehendik



zeuden kriptoaikiboen erabiltzaile diren pertsona fisikoen» kasuan, 2027ko urtarrilaren 1era arte, «informazioa ematera behartutako kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileak» pertsona horien aitorten bat eskuratu beharko du, hornitzaileari ahalbidetuko diona haien egoitza fiskala (edo egoitza fiskalak) zehaztea eta, adierazitako unean eskuratu duen informazioan oinarrituta, aitortenaren arrazoizkotasuna egiaztatzea, «bezeroarekin egoki jarduteari dagozkion prozedurak aplikatuz» bildutako dokumentazio guztia barne.

2. «Kriptoaikiboen erabiltzaile den pertsona fisiko» baten inguruabarrak aldatzen badira eta, horren ondorioz, «informazioa ematera behartutako kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileak» baldin badaki jatorrizko aitortena ez dela zuzena edo fidagarria, edo hori jakiteko arrazoiak baldin baditu, baliozko aitortena edo zentzuzko azalpena eskuratu beharko du «informazioa ematera behartutako kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileak» eta, azkeneko kasu horretan, jatorrizko aitortena baliozkoa dela egiaztatuko duen dokumentazioa.

## **5. artikulua. «Kriptoaikiboen erabiltzaile diren entitateek» egoki jarduteko arauak.**

1. «Kriptoaikiboen erabiltzaile den entitate» bat «informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona» den erabakitzeke, «kriptoaikiboen erabiltzaile diren entitateen» eta zerbitzuen arteko harremana ezartzerakoan, edo 2027ko urtarrilaren 1era arte «lehendik zeuden kriptoaikiboen erabiltzaile diren entitateen» kasuan, «informazioa ematera behartutako kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileak» entitate horien aitorten bat eskuratu beharko du, haien egoitza fiskala (edo egoitza fiskalak) zehaztea eta, hornitzaileak adierazitako unean eskuratu duen informazioan oinarrituta, aitortenaren arrazoizkotasuna egiaztatzea ahalbidetuko diona, «bezeroarekin egoki jarduteari dagozkion prozedurak aplikatuz» bildutako dokumentazio guztia barne. «Kriptoaikiboen erabiltzaile den entitateak» egiaztatzen badu ez duela egoitza fiskalik «informazioa ematera behartutako kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileak» benetako administrazio-lekuan edo bulego nagusiaren helbidean oinarritu ahal izango da bere egoitza zehazteke.

Aitortenean jasotzen bada «kriptoaikiboen erabiltzaile den entitateak» Espainian, Europar Batasuneko Estatu batean edo «informazioa emateko konpromisoa duen jurisdikzio» batean duela egoitza, «informazioa ematera behartutako kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileak» «informazioa jakinarazteko betebeharra duen erabiltzaileak» hartuko du «kriptoaikiboen erabiltzaile den entitatea», baldin eta ez badu arrazoi zehazten –aitortenean, eskuragarri duen informazioan edo informazio publikoan oinarrituta– «kriptoaikiboen erabiltzaile den entitatea» «pertsona baztertu» bat dela.

2. «Informazioa ematera behartutako kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileak» xedatu beharko du «kriptoaikiboen erabiltzaile den entitatea» ez dela «pertsona baztertua», entitate horrek «kontrola egiten duen pertsona bat edo hainbat dituen», «informazioa jakinarazteko betebeharra duten pertsonak» direnak, baldin eta ez badu xedatzen, «kriptoaikiboen erabiltzaile den entitatearen» aitorten batean oinarrituta, entitate hori «entitate aktiboa» dela.

«Kriptoaikiboen erabiltzaile den entitatearen» «kontrola egiten duen pertsonak» zehazteke, kapitalak zurtzea eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzeko apirilaren





28ko 10/2010 Legean eta lege hori garatzen duen araudian ezarritako prozeduren arabera bildu eta kontserbatutako informazioan oinarritu ahal izango da «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzailea». «Informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzailea» ez badago legez behartuta kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legean eta lege hori garatzen duen araudian ezarritako prozedurak, edo lege horrekin edo kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko finantza-sistemaren erabilera prebenitzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauarekin bat datozen prozedurak betetzera, arau horietan ezarritako prozeduren nabarmenki antzekoak aplikatuko ditu, «kriptoahtiboen erabiltzaile den entitatearen» «kontrola egiten duen pertsonak» zehazteko. Aipatutako Zuzentarauak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatu eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/EB Zuzentaraua eta Europako Batzordearen 2006/70/EB Zuzentaraua indargabetzen ditu.

«Kontrola egiten duen pertsona» «informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona» bat ote den zehazteko, «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzailea» «kriptoahtiboen erabiltzaile den entitatearen» aitortpenean oinarrituko da, edo «kontrola egiten duen pertsona horren» aitortpena eskuratu beharko du, haren egoitza fiskala (edo egoitza fiskalak) zehaztea ahalbidetuko diona, eta aitortpenaren arrazoizkotasuna egiaztatu beharko du, hornitzaileak eskuratu duen informazioan oinarrituta, «bezeroarekin egoki jarduteari buruzko prozedurak aplikatuz» bildutako dokumentazio guztia barne.

3. «Kriptoahtiboen erabiltzaile den entitate» baten edo entitate horren gaineko «kontrola egiten duen pertsonaren» inguruabarrak aldatzen badira eta, horren ondorioz, «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» baldin badaki jatorrizko aitortpena ez dela zuzena edo fidagarria, edo hori jakiteko arrazoiak baldin baditu, baliozko aitortpena edo zentzuzko azalpena eskuratu beharko du «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» eta, azkeneko kasu horretan, jatorrizko aitortpena baliozkoa dela egiaztatuko duen dokumentazioa.

## **6. artikulua. «Informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» eskuratutako aitortpenen baliozotasuna.**

1. «Informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» «kriptoahtiboen erabiltzaile den pertsona fisiko» batengandik edo «kontrola egiten duen pertsona» batengandik eskuratzen duen aitortpena baliozkoa izan dadin, sinatuta egon behar du edo pertsonak beste moduren batera baieztatuta; beranduenez, jasotzen den egunean datatuta; eta pertsonari buruzko honako informazio hau jaso behar du:

a) Izen-abizenak.

b) Helbidea.

c) Egoitza fiskalaren jurisdikzioa (edo jurisdikzioak).

d) «Informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona» bakoitzari dagokionez, jurisdikzio bakoitzeko IFZ.

e) Jaiotze-data.

2. «Informazioa ematera behartutako kriptoaaktibo-zerbitzuen hornitzaileak» «kriptoaaktiboaren erabiltzaile den entitate» batengandik eskuratzen duen aitortpena baliozkoa izan dadin, sinatuta egon behar du edo entitateak beste moduren batera baieztatuta; beranduenez, jasotzen den egunean datatuta; eta entitateari buruzko honako informazio hau jaso behar du:

a) Sozietate-izena edo izen osoa.

b) Helbidea.

c) Egoitza fiskalaren jurisdikzioa (edo jurisdikzioak).

d) «Informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona» bakoitzari dagokionez, jurisdikzio bakoitzeko IFZ.

e) Hala badagokio, «entitate aktibo» edo «pertsona baztertu» gisa hartzeko arrazoiak.

3. Bigarren apartatuak aipatzen duen aitortpenak lehenengo apartatuak «entitate aktibo» edo «pertsona baztertu» ez den «kriptoaaktiboaren erabiltzaile den entitatearen» «kontrola egiten duen pertsona» bakoitzari dagokionez jasotzen duen informazio guztia jasoko du, baldin eta «informazioa ematera behartutako kriptoaaktibo-zerbitzuen hornitzaileak» «kontrola egiten duen pertsona» bakoitzaren aitortpena jaso ez badu, 1. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Halaber, aitortpenak jasoko du zein eginkizunen arabera den «informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona» bakoitza aipatutako entitatearen «kontrola egiten duen pertsona», ez bada aurrez zehaztu, «bezeroarekin egoki jarduteari dagozkion prozeduretan» oinarrituta.

4. 1. eta 2. apartatuetan xedatzen dena gorabehera, ez da derrigorrezkoa izango IFZ eskuratzea, egoitzari dagokion jurisdikzioak jaulkitzen ez badu.

5. «Informazioa ematera behartutako kriptoaaktibo-zerbitzuen hornitzaileak» berretsi beharko du artikulua honetan aipatzen diren aitortpenetan jasotzen den informazioa zuzena eta fidagarria dela, «informazioa jakinarazteko betebeharra duten eragiketekin» zerikusia duten zerbitzuak eman baino lehen.

## **7. artikulua. Informazioa jakinarazteko betebeharra.**

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorreko hogeita bigarren xedapen gehigarrian eta zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 45 ter artikuluan xedatzen denari jarraikiz – abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak onesten duen erregelamendu hori–, «informazioa jakinarazteko behartuta dauden kriptoaaktibo-zerbitzuen hornitzaileak» jotzen diren pertsonak edo entitateak behartuta egongo dira haien «kriptoaaktiboaren erabiltzaileei» buruzko aitortpen informatibo bat aurkeztera, erabiltzaile horiek «informazioa jakinarazteko betebeharra» baldin badute, edo «kontrola egiteko



pertsonak» baldin badituzte, «informazioa jakinarazteko betebeharra duten pertsonak» direnak.

Aitorpen informatibo hori urtero egin beharko da, eta Ogasun eta Finantza departamentuko foru diputatuaren foru aginduak ezartzen duen bezala aurkeztu beharko da. Foru aginduak foru dekretu honen 8. artikulua aipatzen duen informazioa eta informazio hori zehazteko beste edozein datu garrantzitsu jaso beharko du, bai eta «informazioa emateko konpromisoa duten jurisdikzioen» eta «Batasunekoak ez diren jurisdikzio kualifikatuen» zerranda ere.

Halaber, «informazioa jakinaraztera behartuta dauden kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaileak» behartuta egongo dira aipatutako aitorpen informatiboa aurkeztera, baita, foru dekretu honen eranskinean jasotzen diren egoki jarduteko arauak aplikatu ondoren, «informazioa jakinarazteko betebeharra duen erabiltzailerik» eta «informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsonarik» ez dagoela ondorioztatzen denean ere, eta «informazioa jakinarazteko beharra duen eragiketarik» egin ez denean, aurreko paragrafoan aipatutako aginduan ezartzen diren baldintzetan eta moduan.

2. «Informazioa jakinaraztera behartuta dauden kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» bat behartuta egongo da informazioa jakinarazteko eta egoki jarduteari buruzko arauak betetzera Gipuzkoan, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundia organo eskuduna bada, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onesten duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 46.Bi artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta:

a) Espainian eskumena duen agintaritzak baimendutako «entitatea» baldin bada, kriptoa-tiboen merkatuari buruzkoa den eta 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) Erregelamenduak eta 2013/36/EB eta 2019/1937 (EB) Zuzentarauak aldatzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/1114 (EB) 2023ko maiatzaren 31ko Erregelamenduaren 63. artikuluari jarraikiz, edo «kriptoa-tibo-zerbitzuak» emateko baimena duen entitatea baldin bada, aipatutako erregelamenduaren 60. artikuluari jarraikiz Espainian jakinarazpena egin ondoren, edo

b) ez Espainian, ez Europar Batasuneko beste Estatu batean, aurreko hizkian aurreikusitako inguruabarretako bat ere betetzen ez duen «entitate» bat baldin bada, eta:

1) egoitza fiskala Espainian duen «entitatea», Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legean, edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautu eta Sozietateen gaineko Zergari, Egoiliarrak ez diren Pertsonen Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeak modu partzialean aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legean xedatzen denari jarraikiz;

2) Espainiako legeriaren arabera eratuta edo antolatuta dagoen «entitatea» eta, gainera, nortasun juridikoa Espainian duena edo Espainian «entitatearen» errentei dagozkien zerga-betebeharrak dituen, informazio-betebeharrak barne;

3º) Espainiatik kudeatzen den «entitate» bat, edo

4º) Espainian ohiko jarduera-zentro bat duen «entitate» edo pertsona fisiko bat.



3. Bigarren apartatuan ezarritakoa gorabehera, «informazioa ematera behartutako kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile bat» behartuta dago Espainian dagoen «sukurtsal» baten bitartez egiten dituen informazioa jakinarazteko eta egoki jarduteko betebeharrak dituen «eragiketen» gaineko informazioa jakinarazteko betebeharrak Espainian betetzera.

4. «Informazioa ematera behartutako kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» batek, «entitate» bat baldin bada, ez ditu bete beharko Espainian informazioa jakinarazteko eta arreta egokia emateko betebeharrak, hurrenez hurren jasoak Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko fiskalitatearen eremuko administrazio-lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentarauaren VI. eranskineko II. eta III. ataletan (77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen zuzentaraua), 2.b) paragrafoaren 2., 3. eta 4. zenbakien arabera bete beharrekoak, baldin eta «informazioa jakinaraztera behartuta dagoen kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» horrek betebeharrak horiek betetzen baditu Europar Batasuneko beste edozein Estatu kidean edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» batean, zerga-egoiliar izateagatik Estatu kide horretan edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» horretan.

5. «Informazioa ematera behartutako kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» batek, «entitate» bat baldin bada, ez ditu bete beharko Espainian informazioa jakinarazteko eta arreta egokia emateko betebeharrak, hurrenez hurren jasoak Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko fiskalitatearen eremuko administrazio-lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentarauaren VI. eranskineko II. eta III. ataletan (77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen zuzentaraua), 2.b) paragrafoaren 3. eta 4. zenbakien arabera bete beharrekoak, baldin eta «informazioa jakinaraztera behartuta dagoen kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» horrek betebeharrak horiek betetzen baditu Europar Batasuneko beste edozein Estatu kidean edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» batean, baldintza hau betetzen duen «entitatea» izateagatik: eratuta edo antolatuta egotea Batasuneko beste Estatu kide edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» horretako legeriaren arabera eta, gainera, nortasun juridikoa izatea beste Estatu kide edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» horretan, edo, «entitatearen» errentei dagokienez, zerga-betebeharrak lotuta egotea, informazio-betebeharrak barne, beste Estatu kide edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» horretan.

6. «Informazioa ematera behartutako kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» batek, «entitate» bat baldin bada, ez ditu bete beharko Espainian informazioa jakinarazteko eta arreta egokia emateko betebeharrak, hurrenez hurren jasoak Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko fiskalitatearen eremuko administrazio-lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentarauaren VI. eranskineko II. eta III. ataletan (77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen zuzentaraua), 2.b) paragrafoaren 4. zenbakiaren arabera bete beharrekoak, baldin eta «informazioa jakinaraztera behartuta dagoen kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» horrek betebeharrak horiek betetzen baditu Europar Batasuneko beste edozein Estatu kidean edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» batean, beste Estatu kide edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» horretatik kudeatuta egoteagatik.

7. «Informazioa ematera behartutako kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» batek, pertsona fisiko bat baldin bada, ez ditu bete beharko Espainian informazioa jakinarazteko eta arreta egokia emateko betebeharrak, hurrenez hurren jasoak Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko fiskalitatearen eremuko administrazio-



lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentarauaren VI. eranskinen II. eta III. ataletan (77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen zuzentaraua), 2.b) paragrafoaren 4. zenbakiaren arabera bete beharrekoak, baldin eta «informazioa jakinaraztera behartuta dagoen kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» horrek bete behar horiek betetzen baditu Europar Batasuneko beste edozein Estatu kidean edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» batean, zerga-egoiliar izateagatik Estatu kide horretan edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» horretan.

8. «Informazioa ematera behartutako kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» batek ez ditu bete beharko Espainian informazioa jakinarazteko eta arreta egokia emateko bete beharrak, hurrenez hurren jasoak Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko fiskalitatearen eremuko administrazio-lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentarauaren VI. eranskinen II. eta III. ataletan (77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen zuzentaraua), 2.b) paragrafoaren 2., 3. eta 4. zenbakiaren arabera bete beharrekoak, jakinarazpen bat aurkeztu badu Espainian, ministro-agindu bidez zehaztutako formatuan, egiaztatuko duena «informazioa jakinaraztera behartuta dagoen kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» horrek betetzen dituela bete behar horiek, lotuta dagoen beste Estatu kide edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» horren arauen arabera, 2.b) paragrafoaren 2., 3. eta 4. zenbakietan jasotako irizpidearen arabera, hurrenez hurren.

9. «Informazioa ematera behartutako kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaile» batek ez ditu bete beharko Espainian informazioa jakinarazteko eta egoki jarduteko bete beharrak, hurrenez hurren jasoak Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko fiskalitatearen eremuko administrazio-lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentarauaren VI. eranskinen II. eta III. ataletan (77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen zuzentaraua), Europar Batasuneko beste edozein Estatu kidean edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» batean kokatutako «sukurtsal» baten bidez eginiko «informazioa jakinarazi beharreko eragiketei» dagokienez, baldin eta beste Estatu kide edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» horretan kokatutako «sukurtsal» horrek bete behar horiek betetzen baditu beste Estatu kide edo «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatu» horretan.

## **8. artikulua. Eman beharreko informazioa.**

1. Aurreko artikuluan aurreikusten den aitorten informatiboak «kriptoa-tiboen erabiltzaileei» buruzko jarraian adierazten den informazioa jaso beharko du, erabiltzaile horiek «informazioa jakinarazteko bete beharra duen erabiltzaile» direnean, edo «kontrola egiten duten pertsonak» dituztenean, «informazioa jakinarazteko bete beharra duten pertsonak» direnak:

a) Izena, helbidea, egoitzari dagokion jurisdikzioa (edo jurisdikzioak), IFZ (edo IFZk) eta, pertsona fisikoen kasuan, «informazioa jakinarazteko bete beharra duen erabiltzaile ororen» jaioterria eta jaiotze-data eta, foru dekretu honetan ezarritako egoki jarduteko arauak aplikatu ondoren, «informazioa jakinarazteko beharra duen pertsona» den «kontrola egiten duen pertsona» bat edo hainbat dituztela zehazten den «entitateen» kasuan, «entitatearen» izena, helbidea, egoitzari dagokion jurisdikzioa (edo jurisdikzioak) eta IFZ (edo IFZk), bai eta «entitatearen» «kontrola egiten duen pertsonaren» izena, helbidea, egoitzari dagokion jurisdikzioa (edo jurisdikzioak), IFZ (edo IFZk) eta jaioterria eta jaiotze-data ere, «informazioa jakinarazteko bete beharra duen pertsona» denean, eta zein eginkizunen arabera den «informazioa jakinarazteko



betebeharra duen pertsona» bakoitza aipatutako entitatearen «kontrola egiten duen pertsona».

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak», jurisdikzio batek edo Europar Batasunak «informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsonaren» nortasuna eta egoitza zehazteko erabilgarri jartzen duten «identifikazio-zerbitzu» baten bitartez, «informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsonaren» nortasunaren eta egoitzaren zuzeneko berrespena eskuratzen badu, eman beharreko informazioa izango da izena, «identifikazio-zerbitzuaren» identifikatzailea eta identifikatzailearen esleipen-jurisdikzioa, eta zein eginkizunen arabera den «informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona» bakoitza aipatutako entitatearen «kontrola egiten duen pertsona».

b) Izena, helbidea, IFZ eta, eskuragarri baldin badago, «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzailearen» mundu mailako entitate juridikoaren identifikatzailea.

c) «Informatu beharreko kriptoahtibo» mota bakoitzerako, «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» horiei dagokienez «informazioa jakinarazteko betebeharra duten eragiketak» egin baditu urte naturalean, hala dagokionean:

1.«Informatu beharreko kriptoahtibo» motaren izen osoa.

2. Ordaindutako zenbateko gordin gehitua, unitate kopuru gehitua eta «informazioa jakinarazteko betebeharra duten eragiketen» kopurua, «diru fiduziarioaren» truke egiten diren erosketek dagokienez.

3. Jasotako zenbateko gordin gehitua, unitate kopuru gehitua eta «informazioa jakinarazteko betebeharra duten eragiketen» kopurua, «diru fiduziarioaren» truke egiten diren transmisioek dagokienez.

4. Merkatuko balio gehitua, unitate kopuru gehitua eta «informazioa jakinarazteko betebeharra duten eragiketen» kopurua, «informazioa jakinarazteko betebeharra duten beste kriptoahtibo» batzuen truke egiten diren erosketek dagokienez.

5. Merkatuko balio gehitua, unitate kopuru gehitua eta «informazioa jakinarazteko betebeharra duten eragiketen» kopurua, «informazioa jakinarazteko betebeharra duten beste kriptoahtibo» batzuen truke egiten diren transmisioek dagokienez.

6. Merkatuko balio gehitua, unitate kopuru gehitua eta «informazioa jakinarazteko betebeharra duten txikizkako ordainketa-eragiketen» kopurua.

8. Merkatuko balio gehitua, unitate kopuru gehitua eta, transferentzia motaren arabera banakatuta «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» dakienean, «informazioa jakinarazteko betebeharra duen erabiltzaileari» bidali zaizkion eta 2. eta 4. zenbakietan jasota ez dauden«transferentziei» dagozkien «eragiketak» (informazioa jakinarazteko betebeharra dutenak).



8. Merkatuko balio gehitua, unitate kopuru gehitua eta, transferentzia motaren arabera banakatuta «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» dakienean, «informazioa jakinarazteko betebeharra duen erabiltzaileak» egin dituen eta 3., 5. eta 6. zenbakietan jasota ez dauden «transferentziei» dagozkien «eragiketak» (informazioa jakinarazteko betebeharra dutenak).

9. Merkatuko balio gehitua, eta «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» kriptoahtiboen merkatuari buruzkoa den eta 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) Erregelamenduak eta 2013/36/EB eta 2019/1937 (EB) Zuzentarauak aldatzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 31ko 2023/1114 Erregelamenduak aipatzen dituen erregistro banatuko helbideetara egindako «transferentzien» xede izan diren unitateen kopuru gehitua, baldin eta ez bazaie ezagutzen inolako loturarik ez aktibo birtualen zerbitzuen hornitzaile batekin, ez finantza-erakunderen batekin.

2. 1.a) apartatuan xedatzen dena gorabehera, honako salbuespen hauek aplikatuko dira eman beharreko informazioari dagokionez:

a) Ez da derrigorrezkoa izango IFZ jakinaraztea, egoitzari dagokion jurisdikzioak ematen ez badu.

b) Ez da beharrezkoa izango jaioterria jakinaraztea, «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» hura eskuratzeko eta jakinarazteko betebeharra ez badu behintzat.

3. 1.c) apartatuko 2. eta 3. zenbakien ondoreetarako, ordaindutako edo jasotako zenbatekoa ordaindu edo jaso den «diru fiduziarioan» jakinarazi beharko da. Zenbatekoak hainbat «diru fiduziariotan» ordaindu edo jaso badira, diru bakarrean jakinaraziko dira, «informatu beharreko eragiketa» bakoitzaren datan irizpide egonkor baten arabera bihurtuta.

1.c) apartatuko 4 eta 9 arteko zenbakien ondoreetarako, merkatuko balioa «diru fiduziario» bakar batean zehaztu eta jakinaraziko da, eta irizpide egonkor baten arabera baloratuko da, «informatu beharreko eragiketa» bakoitzaren datan. «Informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» arrazoizko balorazio-metodo bat erabiliko du merkatuko balioa zehazteko, kotizazio-balioa izan daitekeena. Kotizazio-balioa existitzen ez denean edo merkatuko balioaren erreferentzia bat ez denean, ministro-agindu bidez zehazten denaren arabera erabili den ordezkiko balorazio-metodoa adierazi beharko da.

Jakinarazten den informazioak zenbateko bakoitza zein «diru fiduziariotan» ematen den zehaztu beharko du.

Ordaindutako edo jasotako zenbateko garbia edo, hala badagokio, merkatuaren balio garbia jakinaraziko dira, «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak» erabiltzaileari kobratutako transakzio-gastuak aintzat hartu gabe.

4. «Informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaile» bera bitartekari izan duten «informazioa jakinarazteko betebeharra duten kriptoahtibo» modu baten edo



hainbaten arteko «truke-eragiketak» jakinarazteko betebeharra izango du hornitzaile horrek, 1.c) apartatuko 4. eta 5. zenbakietan xedatzen denari jarraikiz.

5. «Informazioa ematera behartutako kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaileak» 1.c) apartatuko 9. zenbakiak aipatzen dituen erregistro banatuko helbideak edo identifikatzaile baliokideak bildu beharko ditu, eta Administrazioaren eskura izango ditu «informazioa komunikatzeko betebeharra duten eragiketei» buruzko informazioa eman beharra dagoen urteaz geroztik, bosgarren urtea amaitzen den arte.

6. «Informazioa ematera behartutako kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzailea» ez da behartuta egongo 1. apartatuan aipatzen den informazioa ematera, 7.2.b) artikuluan, Espainian edo Europar Batasuneko beste Estatu batean egoitza izanik, «informazioa komunikatzeko betebeharra duten erabiltzaileei» edo «kontrola egiten duten pertsonari» dagokienez xedatzen denaren arabera, baldin eta «informazioa ematera behartutako kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaileak» informatzeko betebeharra betetzen badu «informazioa komunikatzeko betebeharra duen erabiltzailearen» edo «kontrola egiten duen pertsonaren» egoitza den Estatuarekin «agintari eskudunen arteko kualifikazio-hitzarmena» sinatuta eta indarrean duen Europar Batasunetik kanpo dagoen jurisdikzio batean.

7. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hogeigarren xedapen gehigarriko 2.3 apartatuan ezarritakoaren ondoretarako, datu-multzotzat joko dira 1.a) apartatuan eta c) hizkiko zenbaki guztietan aipatzen den informazioa, «informazioa jakinarazteko betebeharra duen erabiltzaile» edo «kontrola egiten duen pertsona» bakoitzari dagokiena.

Halaber, datutzat joko dira 1.b) apartatuan aipatzen diren informazio indibidualizatu guztiak.

### **Xedapen gehigarri bakarra. ELGaren iruzkinen arabeko interpretazioa.**

Foru dekretu honetan zein abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretu bidez onetsitako zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 45 ter artikuluan jasotzen diren arauak eta definizioak, «informazioa jakinarazteko behartuta dauden kriptoa-tibo-zerbitzuen hornitzaileei» buruzkoak, Agintaritza Eskudunarentzako Akordio Ereduari ELGak egindako iruzkinekin eta kriptoa-tibo-zerbitzuen buruzko informazio trukearen esparruarekin bat interpretatuko dira.

### **Xedapen iragankor bakarra. 2025. urtean diru birtualekin egindako eragiketak jakinarazteko betebeharra.**

Abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretu bidez onetsitako zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 48 ter artikuluan diru birtualekin egindako eragiketei dagokienez aipatzen den informatzeko betebeharra 2025ean egindako eragiketei dagokienez bete beharko da, abenduaren 16ko 570/2023 Foru Aginduari jarraikiz, zeinaren bidez onesten baitira 172 eredia, «Diru birtualeko saldoei buruzko aitorten informatiboa» izenekoa, 173 eredia, «Diru birtualarekin egindako eragiketei buruzko aitorten informatiboa» izenekoa, eta horiek aurkezteko moduak eta epeak.





## **Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.**

2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin, foru dekretu honen xedapen iragankor bakarrean xedatzen denari kalterik egin gabe, indargabetuta gelditzen da abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 48 ter artikulua.

## **Azken xedapenetako lehenengoa. Zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzea.**

Jarraian azaltzen diren aldaketak egiten dira abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretu bidez onetsitako zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan:

**Bat.** 8 septies artikulua gehitzen da, honako eduki honekin:

«8 septies artikulua. Kriptoaktiboen operadoreen Erregistroa.

Kriptoaktiboen operadoreen Erregistroa osatuko dute XX/2025 Foru Dekretuaren B apartatuko eranskinean definitzen diren moduan «informazioa komunikatzera behartuta dauden kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile» diren «kriptoaktiboen operadoreek».)»

**Bi.** 15 ter artikulua gehitzen da, honako eduki honekin:

«15 ter artikulua. «Informazioa jakinaraztera behartuta dauden kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile» diren kriptoaktiboen operadoreen Erregistroan alta eman izanaren aitorpena.

1. «Kriptoaktiboen operadorea» «informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzailea» bada XX/2025 Foru Dekretuaren B apartatuko eranskinean definitzen diren baldintzetan, kriptoaktiboen operadoreen Erregistroan alta emanda dagoela dioen aitorpena aurkeztu beharko du, XX/2025 Foru Dekretuaren 7.2 artikulua b) hizkian edo 7.3 artikuluan xedatutakoaren arabera 45 ter artikulua aipatzen dituen informazioa jakinarazteko eta egoki jarduteko betebeharrak dituenean Espainian eta ez dituenean betetzen XX/2025 Foru Dekretuaren aipatutako 7. Artikulua 4., 5., 6., 7. eta 8. apartatuetan aurreikusten diren inguruabarrak Europar Batasuneko beste Estatu batean edo, Kontseiluaren fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa den eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen 2011ko otsailaren 15eko 201/16/EB Zuzentarauaren VI. eranskineko I. sekzioko A.2 apartatuaren arabera, aipatutako zuzentarauaren VI. eranskineko II. eta III. sekzioetan aipatzen diren betebeharrak dituenean Europar Batasuneko beste Estatu batean, baina betebehar horiek betetzera behartuta ez dagoenean Europar Batasuneko beste Estatu horretan, aipatutako eranskineko I. sekzioko C, D, E, F eta G apartatuetan aurreikusten denari jarraikiz, Espainian betetzera behartuta dagoelako.

2. Alta emanda dagoela dioen aitorpenak honako informazio hau jaso beharko du:

a) Izen-abizenak edo sozietate-izena edo izen osoa.

b) Egoitzaren jurisdikzioa.

c) «Kriptoaktiboen operadoreari» esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia, hura jaulki duen jurisdikzioa zein den adierazita.

d) Egoitza.

e) Helbide elektronikoak, webguneak barne.

f) Hala badagokio, Espainian edo egoitza-herrialdean edo -jurisdikzioan dituen legezko ordezkarien izen-abizenak edo sozietate-izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

g) «Informazioa jakinarazteko betebeharra duten erabiltzaileen» egoitza fiskaleko jurisdikzioak.

h) Hala badagokio, «Europar Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatua», XX/2025 Foru Dekretuaren 7. artikuluko 4., 5., 6., 7. eta 9. apartatuek aipatzen dutena.

3. Aitorpen hori aurkeztu beharko da Ogasun eta Finantza departamentuko foru diputatuaren foru aginduan ezartzen den moduan.

4. Zerga-administrazioak identifikazio indibidualeko zenbaki bat esleituko dio «kriptoaktiboen operadoreari», Europar Batasuneko Estatu guztiei jakinaraziko zaiena.»

**Hiru.** 16 ter artikulua gehitzen da, honako eduki honekin:

«16 ter artikulua. Kriptoaktiboen operadoreen Erregistroan aldaketa egin izanaren aitorpena.

1. Alta-aitorpenean edo ondoren egindako beste edozein aldaketa-aitorpenetan jasotzen diren datuetakoren bat aldatzen denean, erregistratuta dagoen «kriptoaktiboen operadoreak» zerga-administrazioari jakinarazi beharko dio aldaketa hori, dagokion aitorpenaren bitartez.

2. Aitorpena aurkeztea eragin duten egitateak gertatu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da aitorpena.»

**Lau.** 17 ter artikulua gehitzen da, honako eduki honekin:

«17 ter artikulua. Kriptoaktiboen operadoreen Erregistroan baja eman izanaren aitorpena.

1. «Informazioa jakinarazteko betebeharra duten erabiltzaileak» edukitzeari uzten dioten edo operadore izateari uzten dioten «kriptoaktiboen operadoreek» –9 quater 1 artikuluan aipatzen direnek– dagokion aitorpena aurkeztu beharko dute, zeinaren bitartez inguruabar horren berri emango dioten zerga-administrazioari, kriptoaktiboen operadoreen Erregistroan baja emateko.

2. Baja-aitorpena aurkeztu beharko da aurreko apartatuan aurreikusten diren inguruabarretakoren bat ematen denetik hilabete bateko epean.»



**Bost.** Aldatu egiten da VI. Tituluko II. Kapituluko 3. Sekzioa, eta honela idatzita gelditzen da:

«3. sekzioa. Kontuei, kriptoaikiboei, eragiketeei eta aktibo finantzarioei buruzko informazioa emateko betebeharra»

**Sei.** 45 ter artikulua gehitzen da, honako eduki honekin:

«45 ter artikulua. «Informazioa jakinarazteko betebeharra duten kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileen» informatzeko betebeharra.

1. XX/2025 Foru Dekretuaren eranskineko B apartatuan xedatutakoaren arabera «informazioa jakinaraztera behartuta daude kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzailetzat» hartzen diren pertsonak edo entitateek foru dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera «informazioa jakinaraztera behartuta dauden» erabiltzaile diren beraien «kriptoaikiboen erabiltzaileei» edo «informazioa jakinarazteko betebeharra duten pertsona» izanik, «kontrola egiten duten pertsonaei» buruzko urteko aitortpen informatiboa aurkezteko betebeharra izango dute.

Halaber, «informazioa jakinaraztera behartuta dauden kriptoaikibo-zerbitzuen hornitzaileek» XX/2025 Foru Dekretuan ezarritako egoki jarduteko arauak betetzeko betebeharra izango dute.

Artikulu honetan eta erregelamendu honetako xedapenetan erabiltzen diren kriptoaikiboen operadoreen Erregistroarekin lotutako terminoek XX/2025 Foru Dekretuaren eranskinetan jasotzen den esanahia izango dute, Kontseiluaren fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa den eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren VI. eranskinetan eta kriptoaikiboei buruzko informazio-truke automatikoari buruzko Agintari Eskudunen arteko Alde Anitzeko Akordioan xedatutakoaren arabera.

2. Eman beharreko informazioa izango da elkarlaguntzari buruzko arauditik eta XX/2025 Foru Dekretuan xedatzen denetik ondorioztatzen dena.

3. Ogasun eta Finantza departamentuko foru diputatuaren foru agindu bidez onetsiko da dagokion aitortpen-eredua.»

**Zazpi.** Honela idatzita gelditzen da 48 bis artikulua:

«48 bis artikulua. Kriptoaikiboetako saldoei buruzko informazioa jakinarazteko betebeharra.

1. Egoitza Espainian duten pertsonak eta entitateek, eta egoitza atzerrian duten pertsona edo entitateen Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkorrek, baldin eta hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko, kriptoaikiboak mantentzeko, biltegitratzeko eta transferitzeko zerbitzuak ematen badituzte, dela nagusiki zerbitzu hori emateko, dela zerbitzu hori beste jarduera batekin lotuta emateko, behartuta egongo dira gordeta dituzten kriptoaikibo guztiei buruzko urteko aitortpen informatiboa aurkeztera, dagokion eredua onesten duen foru aginduak ezartzen duen baldintzetan.



2. Honako hauek jasoko dira zerga-administrazioari eman beharreko informazioan: urteko uneren batean kriptoaaktiboak –titular edo onuradun gisa– dagozkien pertsonen edo entitateen izen-abizenak edo sozietate-izena edo izen osoa, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta saldoak (abenduarien 31n).

Saldoei buruzko informazioan, kriptoaaktibo bakoitzerako, kriptoaaktibo mota eta kriptoaaktibo unitate kopurua (abenduarien 31n) jasoko da, eta horien balorazioa eurotan.

Balioa eurotan kalkulatzeko, behartutako subjektuek negoziazio-plataforma edo prezioen jarraipenerako webgune nagusiek eskaintzen duten abenduarien 31ko kotizazioa hartuko da edo, bestela, abenduarien 31n kriptoaaktiboak eurotan duen merkatuko balioaren zentzuzko zenbatespena egingo da. Horri dagokionez, balorazioa egiteko zein kotizazio edo balio erabili den adierazi beharko da.

Halaber, hirugarrenen kontura dauden diru fiduziarioko abenduarien 31ko saldoei buruzko informazioa ere jakinarazi beharko da eta, horiei dagokienez, apartatu honen lehenengo paragrafoan aipatzen diren titularraren, baimenduarien edo onuradunaren identifikazio-datuak eman beharko ditu, bai eta horiek eurotan duten balorazioa ere, moneta euroa ez denean.

3. Abenduarien 31 baino lehen, artikulua honen 1. apartatuan aipatzen diren pertsonak edo entitateek artikulua honen 2. apartatuan aipatzen diren pertsonak edo entitateei dagozkien kriptoaaktiboak zaintzeari utzi baldin badiote, eman beharreko informazioa izango da inguruabar hori gertatu den datakoa.

4. Artikulua honen ondorioetarako, kriptoaaktiboaren kontzeptua kriptoaaktiboaren merkatuari buruzkoa den eta 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) Erregelamenduak eta 2013/36/EB eta 2019/1937 (EB) Zuzentarauak aldatzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 31ko 2023/1114 (EB) Erregelamenduarien 3.1.5) artikuluan definitutakoaren arabera ulertuko da.

Artikulua honetan arautzen den informatzeko betebeharra XX/2025 Foru Dekretuarien eranskineko A.4 apartatuan definitutako «informazioa emateko betebeharra duten kriptoaaktiboak» soilik dagokie.

Halaber, diru fiduziarioaren kontzeptua ulertuko da XX/2025 Foru Dekretuarien eranskineko C.5 apartatuan definitzen denaren arabera.»

**Zortzi.** Honela idatzita gelditzen da 54 bis artikulua:

«54 bis artikulua. Atzerrian dauden kriptoaaktiboak buruzko informazioa jakinarazteko betebeharra.

1. Egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona fisikoak eta juridikoak, egoitza Espainian ez duten pertsonen edo entitateen Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkorrek eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauarien 35.3 artikuluan aipatzen diren entitateek urtero, urte bakoitzeko abenduarien 31n, aitorten informatiboa aurkezteko betebeharra izango dute, honako hauei dagokienez: atzerrian titular edo onuradun gisa dituzten kriptoaaktibo guztiei dagokienez, bai eta, beste moduren batera, haien gain xedapen-ahalmena duten edo,



kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, titular errealtzat jotzen diren kriptoaaktiboak dagokienez, hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko, kriptoaaktiboak mantentzeko, biltegitratzeko eta transferitzeko zerbitzuak ematen dituzten pertsonak edo entitateak gordetzen dituztenean.

Betebehar hori bera izango dute aitorenaren xede den urteko edozein unetan aipatutako kriptoaaktiboaren titular edo onuradun izan direnak, edo horien gain xedapen-ahalmena izan dutenak, edo titular erreala izan direnak eta urte horretako abenduaren 31n izaera hori galdu dutenak. Kasu horietan, iraugipena gertatu zen datakoa izango da jakinarazi beharreko informazioa.

2. Artikulu honen ondorioetarako, kriptoaaktiboaren kontzeptua kriptoaaktiboaren merkatuari buruzkoa den eta 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) Erregelamenduak eta 2013/36/EB eta 2019/1937 (EB) Zuzentarauak aldatzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 31ko 2023/1114 (EB) Erregelamenduaren 3.1.5) artikuluan definitutakoaren arabera ulertuko da.

Kriptoaaktiboak atzerrian kokatuta daudela ulertuko da hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko, kriptoaaktiboak mantentzeko, biltegitratzeko eta transferitzeko zerbitzuak emanda, kriptoaaktibo horiek zaintzen dituen pertsona edo entitatea edo establezimendu iraunkorra Espainiako agintaritzak eskudunak baimendutako entitatea ez bada edo, hala badagokio, Espainian ez badu egin dagokion jakinarazpena, kriptoaaktiboaren merkatuari buruzkoa den eta 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) Erregelamenduak eta 2013/36/EB eta 2019/1937 (EB) Zuzentarauak aldatzen dituen 2023/1114 (EB) Erregelamenduaren 63. eta 60. artikuluen arabera, hurrenez hurren, edo ez badago jasota kriptoaaktiboaren operadoreen zerga-administrazioaren Erregistroan.

3. Honako hau izango da zerga-administrazioari eman beharreko informazioa:

a) Hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko, kriptoaaktiboak mantentzeko, biltegitratzeko eta transferitzeko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo entitatearen izen-abizenak, edo sozietate-izena edo izen osoa eta, hala badagokio, pertsona edo entitate horrek bere egoitza fiskala duen herrialdeko identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta bere helbidea edo webgunearen helbidea ere.

b) Kriptoaaktibo mota bakoitzaren identifikazio osoa

c) Kriptoaaktibo mota bakoitzaren saldoak abenduaren 31n, kriptoaaktibo-unitatetan eta eurotan duten balorazioan adierazita.

Balioa eurotan kalkulatzeko, behartutako subjektuek negozio-plateforma edo prezioen jarraipenerako webgune nagusiek eskaintzen duten abenduaren 31ko kotizazioa hartuko da edo, bestela, kriptoaaktiboak eurotan duen merkatuko balioaren zentzuzko zenbatespena egingo da. Horri dagokionez, balorazioa egiteko zein kotizazio edo balio erabili den adierazi beharko da.



4. Abenduaren 31ko saldoei buruzko informazioa eman beharko du titularra edo onuraduna denak edo beste moduren batera kriptoaktiboen gaineko xedapen-ahalmena duenak, edo data horretan titular errealtzat jotzen denak.

Gainerako titularrek, onuradunek, xedapen-ahalmenak dituztenek edo titular errealek izatera hori izateari utzi zioten datan adierazi beharko dituzte kriptoaktiboen saldoak.

5. Artikulu honetan aurreikusten den informatzeko betebeharra ez zaie aplikatuko ondorengo kriptoaktiboei:

a) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 12. artikulua aipatzen dituen entitateak direnean kriptoaktiboen titularrak.

b) Kriptoaktiboen titularrak egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona juridikoak edo bestelako entitateak, edo egoitza Espainian ez duten establezimendu iraunkorrak direnean, haien kontabilitatean modu indibidualizatuan erregistratuta eta haien izenaren, balioaren eta zaintza-entitatearen eta kokatuta dauden herrialdearen edo lurraldearen arabera identifikatuta.

c) Kriptoaktiboen titularrak direnean egoitza Espainian duten pertsona fisikoak, haien jarduera ekonomikoa eta kontabilitatea Merkataritza Kodearen arabera garatzen dutenak, kontabilitate-dokumentazio horretan modu indibidualizatuan erregistratuta eta haien izenaren, balioaren eta zaintza-entitatearen eta kokatuta dauden herrialdearen edo lurraldearen arabera identifikatuta.

d) Ez da kriptoaktiboen informazioa jakinarazteko betebeharririk egongo, abenduaren 31ko saldoak, 3.c) paragrafoan aipatzen direnak, eurotan baloratuta, guztira, 50.000 eurotik gorakoak ez direnean. Baterako muga hori gaindituz gero, kriptoaktibo guztien gaineko informazioa jakinarazi beharko da.

6. Eman beharreko informazioari dagokion hurrengo urteko urtarrilaren 1a eta ekainaren 30a bitartean bete beharko da betebeharrak hau.

Hurrengo urteetan, aitortpena aurkezteko betebeharra egongo da soilik 5.d) apartatuak aipatzen duen saldoak 20.000 eurotik gorako igoera izan badu, azkeneko aitortpena aurkeztu zenetik.

Laugarren apartatuko azkeneko paragrafoan aurreikusten diren kasuetan, beti izango da derrigorrezkoa apartatu horretan aipatzen diren kriptoaktiboei buruzko aitortpena aurkeztea.

Ogasun eta Finantza departamentuko foru diputatuaren foru agindu bidez onetsiko da dagokion aitortpen-eredua.

7. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorreko hamaikagarren xedapen gehigarrian ezartzen denaren ondoretarako, datu-multzoz ezberdinak eratzen dituzte 3.a) apartatuan entitate bakoitzerako eta 3.c) apartatuan aipatzen diren informazioek eta 4. apartatuaren azkeneko paragrafoan kriptoaktibo bakoitzerako aipatzen direnek.



Ondorio berbererako, datuzat joko da 3. apartatuko b) paragrafoan kriptoaikibo bakoitzerako aipatzen den informazio bakoitza.»

**Bederatzi.** Honela idatzita gelditzen da 57. artikulua 4. apartatua:

«4. Bitartekari gisa, aitorpena aurkeztera behartuta dauden pertsonak edo entitateak.

a) Aitorpena aurkeztera behartuta egongo dira, bitartekari gisa, artikulua honen 6.a) apartatuak aipatzen dituen konexio-irizpideetakoren bat betetzen badute:

1. Informazioa eman beharra dakerren mugaz gaindiko mekanismo bat diseinatzen, merkaturatzen, antolatzen, egikaritzeko eskura jartzen duen edo egikaritzea kudeatzen duen pertsona edo entitate oro.

2. Informazioa eman beharra dakarren mugaz gaindiko mekanismo baten diseinuari, merkaturatzeari, antolaketari, egikaritzeko eskura jartzeari edo kudeaketari dagokionez, zuzenean edo beste pertsona batzuen bitartez, laguntza edo aholkularitza emateko konpromisoa hartu duela dakien edo zentzuz badakiela pentsa daitekeen pertsona edo entitate oro.

b) Ez dute aitorpena aurkezteko betebeharririk izango ondorengo inguruabarretakoren bat betetzen duten pertsona edo entitate bitartekariak:

1. Informazioa emateak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 2. Apartatuak aipatzen duen sekretu profesionalerako betebeharraren araubide juridikoa urratzen duenean, interesdun zergapekoak, aipatutako xedapenean xedatzen denari jarraikiz, horretarako baimena ematen ez badu behintzat.

Kasu horretan, salbuetsitako pertsona edo entitate bitartekariak inguruabar horren berri eman beharko die mekanismoan esku hartzen duten beste bitartekariei eta interesdun zergapekoari, informazioa emateko betebeharra sortzen den hurrengo egunetik hasita bost eguneko epean, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hamazazpigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen komunikazioaren bitartez. Salbuetsitako bitartekaria abokatua denean, bere bezeroari soilik egin beharko dio aurreko komunikazioa, hura bitartekaria izan, zein interesdun zergapekoa izan.

Ondore horietarako, bezerotzat hartuko da informazioa eman beharra dakarren mugaz gaindiko mekanismo bati dagokionez sekretu profesionalerako betebeharra duen bitartekari baten zerbitzuak –laguntza, aholkularitza, aholkuak edo jarraibideak barne– jasotzen duen edozein bitartekari edo interesdun zergapeko.

Komunikazioaren edukia Ogasun eta Finantza departamentuko foru diputatuaren foru agindu bidez onesten den ereduaren arabera izango da.

2. Hainbat pertsona edo entitate bitartekari daudenean, horietako batek aitorpena aurkeztu duenean.



Salbuetsitako pertsona edo entitate bitartekariak aitortzen behartutako beste bitartekari batzuek legez aplikagarriak diren arauen arabera aurkeztu dutela egiaztatzen duen froga fede-emailea gorde beharko du.

Ondore horietarako, froga fede-emailetzat hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren hemezortzigarren xedapen gehigarriko 2. apartatuan aipatzen den komunikazioa.

Aitortzen aurkeztu duen pertsona edo entitate bitartekariak mekanismoan esku hartzen duten beste pertsona edo entitate bitartekariari jakinarazi beharko die, bost eguneko epean, aitortzen aurkeztu duen hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Komunikazioaren edukia Ogasun eta Finantza departamentuko foru diputatuaren foru agindu bidez onesten den ereduaren arabera izango da.»

**Hamar.** h) hizkia gehitzen zaio 79. artikularen 1. apartatuari, ondorengo edukia duena:

«h) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hogeigarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuan edo hogeita bigarren xedapen gehigarriko 7. apartatuan aipatzen den kautelazko baja gertatzea.»

**Azken xedapenetako bigarrena. Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketari eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa, aldatzea.**

Aldatu egiten da apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretu bidez onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketari eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduen 9. artikuluko 2. apartatuko e) hizkia, eta honela idatzita gelditzen da:

«e) Kontsulta baldin bada establezimendu iraunkor baten existentziari, mugaz gaindiko transakzio bati edo pertsona fisiko batek ondore fiskaletarako duen egoitzari buruzkoa, kontsultatzaileak berariaz adierazi beharko du inguruabar hori, alde batera utzi gabe zerga-administrazioak kontsultari erantzuteko ofiziozko irizpena emateko aukera duela, eta, gainera, honako datu hauek jasoko dira:

i) Kontsultatzaileak egoitza beste Estatu batean duenean, egoitza dagoen Estatuak kontsultatzaileari esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia.

ii) Kontsultatzailea zein merkataritza- edo zerga-taldekoa den adierazten duen identifikazioa.

iii) Garatu diren edo garatu behar diren enpresa-jardueraren, transakzioen edo transakzio-segidaren deskribapena. Nolanahi ere, deskribapen hori egingo da erabat errespetatuz sekretu komertzialaren, industrialaren edo profesionalaren arauak eta interes publikoa.

iv) Kontsultaren xede den transakzioak edo eragiketak eragina jasan lezaketen Estatuak.





v) Kontsultari emandako erantzunen eragina jasan lezaketen pertsonak, beste Estatu batean egoitza dutenak, eta haien egoitza duten Estatuak esleitu dien identifikazio fiskaleko zenbakia.

vi) Aplikatzekoa den elkarlaguntzari buruzko araudiak eska litzakeen beste datu batzuk.»

**Azken xedapenetako hirugarrena. Finantza kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 29ko 25/2016 Foru Dekretua aldatzea.**

Aldatu egiten dira finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 29ko 25/2016 Foru Dekretuaren honako manu hauek:

**Bat.** Honela idatzita gelditzen da 1. artikulua:

«1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da arautzea zein obligazio dituzten finantza-erakundeek finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza identifikatzeari eta haiei buruz informatzeari dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 17. artikuluko 5. apartatuan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat. Horretarako, aintzat hartzen dira, alde batetik, 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaraua, zeina bi aldiz aldatu baita (Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentaruaren bidez, fiskalitate arloko informazioa nahitaez modu automatikoan trukatzeari dagokionez, eta Kontseiluaren 2023ko urriaren 17ko 2023/2226 (EB) Zuzentaruaren bidez), eta, bestetik, Kontu Finantzarioen Informazio Truke Automatikoari buruz Agintari Eskudunen artean izenpetutako Akordio Multilateralaren eta haren Eranskina.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hamabosgarren xedapen gehigarriak jasotzen dituen betebeharrei dagokionez Foru dekretu honetan eta dekretua garatzeko araudietan erabiltzen diren terminoek eranskinean jasotzen den esanahia izango dute, araudiak bestelakorik ezartzen ez badu; eta hori, fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa den eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaruaren I. eta II. eranskinetan eta informazioa automatikoki trukatzeari buruzko Agintari Eskudunen arteko Alde Anitzeko Akordioan xedatutakoaren arabera.

**Bi.** Honela idatzita gelditzen da 5. artikulua:

«5. artikulua. Eman beharreko informazioa.

1. Honako hau izango da informazioa jakinarazteko betebeharra duten kontuetako bakoitzari dagokionez eman beharreko informazioa:

a) Kontuaren titularra izanik, informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona ororen izen-abizenak edo sozietate-izena edo izen osoa, helbidea, egoitza kokatzen den herrialdea edo jurisdikzioa eta IFZ. Kontuaren titularitatea pertsona fisikoei badagokie, aipatutakoaz gain, jaioterria eta jaiotze-data ere jakinarazi beharko dira, eta kontuaren titularrak baliozko aitortpen bat aurkeztu al duen.

Kontu baten titularitatea entitate bati baldin badagokio, eta azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinetako V., VI. Eta VII. Sekzioetan jasotzen diren egoki jarduteko arauak aplikatu ondoren, kontrola egiten duten pertsona bat edo hainbat dituen entitate gisa identifikatzen bada, eta pertsona horiek informazioa jakinaraztera behartuta baldin badaude, aurreko paragrafoan informazioa jakinarazteko betebeharra duten pertsonen eta entitateen dagokienez aipatzen den informazioa jakinarazi beharko da, bai eta zein eginkizunen arabera den «informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona» bakoitza aipatutako entitatearen «kontrola egiten duen pertsona», eta informazioa komunikatzeko betebeharra duen pertsona bakoitzerako baliozko aitortpena eman al den.

b) Kontu-zenbakia, kontu mota, kontua lehendik zegoen edo kontu berria den eta baterako kontua den eta, kasu horretan, baterako kontuaren titular kopurua.

c) Informazioa ematera behartutako finantza-erakundearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Kontuaren saldoa edo balioa, dagokion urtearen amaieran.

Eskudiruzko balioa duen aseguru-kontratua edo urteko kuoten kontratua bada, eskudiruzko balioa edo erreskate-balioa hartuko da kontuan.

Kontua urte horretan ezeztatzen bada, jakinarazi egin beharko da ezeztatu egin dela.

e) Zaintza-kontu baten kasuan:

1. Guztizko zenbateko gordina interes moduan, guztizko zenbateko gordina dibidendu moduan eta guztizko zenbateko gordina beste errenta batzuk moduan, kontuan gordailututako aktiboei, kasu bakoitzean kontuan ordaindutakoei edo idatziz jasotakoei edo kontuarekin lotutakoei dagokienez urte naturalean sortutakoak.

2. Urte naturalean zehar kontuan ordaindutako edo idatziz jasotako finantza-aktiboen salmentatik edo amortizaziotik eratorritako guztizko diru-sarrera gordinak, zeinetan informazioa ematera behartutako finantza-erakundeak kontuaren titularrarentzat zaintzaile, artekari, izendatutako agente edo beste edozein motatako ordezkari gisa jarduten duen.

f) Gordailu-kontu baten kasuan, urte naturalean zehar kontuan ordaindutako edo idatziz jasotako interesen guztizko zenbateko gordina.

g) Inbertsio-erakunde batean mantendutako eta tresna juridikoak diren kapital-partaidetzen kasuan, informazioa komunikatzeko betebeharra duen pertsona zein eginkizunen arabera den kapital-partaidetzen titularra.



h) Aurreko e) eta f) hizkietan deskribatzen ez den kontu baten kasuan, kontuaren titularrari urte naturalean zehar kontuarekin lotuta ordaindutako edo idatziz jasotako guztizko zenbateko gordina, informazioa ematera behartutako finantza-erakundea zergapekoa edo zordun pertsona edo entitatea denean, kontuaren titularrari urtean zehar egindako amortizazioei dagokien guztizko zenbatekoa barne.

Jakinarazitako informazioak zenbateko bakoitza zein monetatan adierazten den zehaztu behar du.

2. Aurreko apartatuan xedatzen dena gorabehera, honako salbuespen hauek aplikatuko dira eman beharreko informazioari dagokionez:

a) Ez da derrigorrezkoa izango IFZ eta jaiotze-data jakinaraztea aurretiaz dauden kontuen kasuan, baldin eta IFZ edo jaiotze-data ez badaude finantza-erakundearen erregistroetan, eta erakundea ez badago datu horiek biltzera behartuta, aplikagarria den araudiaren arabera.

Hala ere, finantza-erakundea IFZ eta jaiotze-data eskuratzen ahaleginduko da, beranduen jota aurretiaz dauden kontuak informazioa jakinarazteko betebeharra duten kontu gisa identifikatzen diren hurrengo urtetik bigarren urte amaierarako, baita aurretiaz dagoen kontuari dagokion informazioa eguneratzea exijitzen denean ere, kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legean eta hura garatzen duen araudian ezartzen diren prozeduren arabera.

a) Ez da derrigorrezkoa izango IFZ jakinaraztea, egoitzari dagokion herrialdeak edo jurisdikzioak jaulkitzen ez badu.

c) Ez da nahitaezkoa izango jaioterria jakinaraztea, honako baldintza hauek betetzen ez badira:

1. Finantza-erakundeak jaioterria eskuratzeko eta jakinarazteko betebeharra izatea, edo aurrez betebehar hori eduki izana, 2015eko urtarrilaren 5ean indarrean zegoen Europar Batasuneko edozein tresna juridikori jarraikiz.

2. Eskuragarri egotea erakunde horren mantentzen dituen eta bilaketa elektronikoaren xede izan daitezkeen datuetan.

3. 1.e)2 apartatuan xedatzen dena gorabehera, eta informazioa ematera behartutako finantza-erakundeak ez badu argi identifikatutako edozein kontu-multzorekiko beste irizpide bat hautatzen, ez da beharrezkoa izango finantza-aktibo baten salmentatik edo amortizaziotik eratorritako diru-sarrera gordinak jakinaraztea, baldin eta informazioa ematera behartutako finantza-erakundeak diru-sarrera horiek jakinarazten baditu, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarriari, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretu bidez onetsitako zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 45 ter artikuluari eta XX/2025 Foru Dekretuari jarraikiz.

4. Neurri iragankorrak.



1.a) apartatuko bigarren paragrafoan eta 1.g) apartatuan xedatzen dena gorabehera, 2025eko abenduaren 31n informazioa ematera behartutako finantza-erakundeak irekita dagoen eta informatu beharrekoa den kontu bakoitzari dagokionez, eta 2025eko abenduaren 31aren ondorengo bi urte naturaletan zehar, informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona bat kontrola egiten duen pertsona edo entitatearen kapitalean partaidetza duen pertsona izateko eginkizunari edo eginkizunei buruzko informazioa jakinarazi beharko da soilik informazio hori informazioa ematera behartutako finantza-erakundeak mantentzen dituen eta bilaketa elektronikoen xede izan daitezkeen datuetan eskuragarri baldin badago.»

**Hiru.** Honela idatzita gelditzen da bigarren xedapen gehigarria:

«Bigarrena. ELGAren lruzkinen arabera interpretazioa.

ELGAK Agintaritza Eskudunarentzako Akordio Ereduari eta informazioa komunikatzeko estandar komunari egindako lruzkinen arabera interpretatuko dira foru dekretu honetan finantza-erakundeek finantza-kontu jakin batzuen titularitatea edo kontrola duten pertsonen egoitza identifikatzeko eta horren berri emateko duten betebeharrei dagozkien arauak eta definizioak.»

### **Azken xedapenetako laugarrena. Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.**

Foru dekretu honen bitartez, Gipuzkoako ordenamendu juridikoan txertatzen da Kontseiluaren 2023ko urriaren 17ko 2023/2226 Zuzentaraua (EB), fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena.

### **Azken xedapenetako bosgarrena. Arauak emateko ahalmena.**

Ogasun eta Finantza departamentuko foru diputatua gaitzen da foru dekretu honetan ezarritakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman eta beharrezko neurriak har ditzan.

### **Azken xedapenetako seigarrena. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.**

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango da aplikagarria.



## ERANSKINA

### DEFINIZIOAK

Eranskin honetan jasotzen dira «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo zerbitzuen hornitzaileek» aintzat hartu behar dituzten definizioak Zerga Administrazioak truke automatiko bidez komunikatu ahal izan dezan Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak) hogeita bigarren xedapen gehigarrian aipatzen den informazioa, hori guztia honako xedapenetan ezarritakoarekin bat: Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa, 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena (8 bis quinquies artikulua eta VI. eranskina); kriptoahtiboari buruzko informazio truke automatikoan eskudun diren Agintarien arteko Akordio Multilateralak; eta Espainiak helburu berberarekin sinatzen dituen nazioarteko bestelako akordioak.

Ondorengo terminoak jarraian adierazten den moduan ulertuko dira, eta Agintaritzaren Eskudunarentzako Akordio Ereduari ELGAK egindako iruzkinekin eta kriptoahtiboari buruzko informazio trukearen esparruarekin bat interpretatuko dira:

#### A. Informatu beharreko kriptoahtiboa.

1. «Kriptoahtiboa»: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 31ko (EB) 2023/1114 Erregelamenduaren 3.1.5) artikuluan definitutako kriptoahtiboa. Erregelamendu hori kriptoahtiboen merkatuei buruzkoa da, eta 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak eta 2013/36/EB eta 2019/1937EB Zuzentaruak aldatzen ditu.

2. «Banku zentralen diru digitala»: «banku zentral» batek edo beste diru-agintaritzak batek jaulkitako edozein «diru fiduziario» digital.

3. «Banku zentrala»: legez edo Estatu mailako araubidez, ordainbide gisa zirkulatzerak bideratutako tresnak jaulkitzen dituen agintaritzaren nagusia, jurisdikzio bereko Gobernuaren bestelakoa. Erakunde horrek jurisdikzioetik independentea den agintaria instituzional bat eduki ahal izango du bere barnean, jurisdikzioaren jabetzakoa izan daitekeena –edo ez–, osorik edo modu partzialean.

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharrak ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko C.8 apartatuan «banku zentrala»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

4. «Informatu beharreko kriptoahtiboa»: «banku zentralerako diru digitalak», «diru elektronikoa» edo «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaileak», behar bezala, ordaintzeko edo inbertitzeko ezin direla erabili erabaki duen «kriptoahtiboa» ez den «kriptoahtibo» oro.

5. «Diru elektronikoa»: honako ezaugarri hauek dituen «kriptoahtibo» oro:

a) «Diru fiduziario» bakar baten irudikapen digitala izatea.



- b) Ordainketa-eragiketak egiteko funtsak jasotzerakoan jaulkita egotea.
- c) Jaulkitzailearen gaineko kreditu baten bidez adierazita egotea, eta kreditu hori «diru fiduziario» berean izendatuta egotea
- d) Jaulkitzailea ez den pertsona fisiko edo juridiko batek ordainketan onartzea.
- e) Jaulkitzaileak bete beharreko arazuko eskakizunen arabera, edozein unetan eta «diru fiduziarioaren» beraren balio nominalean itzul daitekeena izatea, produktuaren titularrak hala eskatzen duenean.

## **B. Informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzailea.**

1. «Kriptoahtibo zerbitzuen hornitzailea»: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 31ko (EB) 2023/1114 Erregelamenduaren 3.1.15) artikuluan definitutako kriptoahtibo zerbitzuen hornitzailea. Erregelamendu hori kriptoahtiboen merkatuei buruzkoa da, eta 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak eta 2013/36/EB eta 2019/1937EB Zuzentarauak aldatzen ditu.
2. «Kriptoahtiboaren operadorea»: «kriptoahtibo-zerbitzuen» emailea, «kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzailea» ez dena.
3. «Informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzailea»: «informazioa jakinarazteko betebeharra duen erabiltzaile» baten kontura edo haren izenean «truke-eragiketak» egitea dakarten «kriptoahtibo-zerbitzu» bat edo hainbat egiten duen «kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzaile» eta «kriptoahtiboaren operadore» oro.
4. «Kriptoahtiboaren zerbitzua»: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 31ko (EB) 2023/1114 Erregelamenduaren 3.1.16) artikuluan definitutako kriptoahtiboaren zerbitzua, blokeoa (staking) eta maileguak barne. Erregelamendu hori kriptoahtiboaren merkatuei buruzkoa da, eta 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak eta 2013/36/EB eta 2019/1937EB Zuzentarauak aldatzen ditu.

## **C. Informatu beharreko eragiketak.**

1. «Informatu beharreko eragiketa»: «informazioa ematera behartzen duten kriptoahtiboaren» «truke-eragiketa» eta «transferentzia» oro.
2. «Truke-eragiketa»: «informazioa ematera behartzen duten kriptoahtiboaren» eta «diru fiduziarioen» arteko trukea, eta «informazioa ematera behartze duten kriptoahtibo» modu baten edo hainbaten arteko trukea.
3. «Informatu beharreko txikizkako ordainketa-eragiketa»: «Informatu beharreko kriptoahtiboak» ondasunen edo zerbitzuen truke «transferitzea», Amerikako Estatu Batuetako 50.000 dolar baino gehiagoko zenbatekoarekin (eurotan).

«Transferentzia» bat «informatu beharreko txikizkako ordainketa-eragiketa» gisa komunikatuko da, ondasunak edo zerbitzuak aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoaren truke eskuratzen dituena «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzailearen» «kriptoahtibo-erabiltzailea» denean. Saltzailea «informazioa ematera behartutako kriptoahtibo-zerbitzuen hornitzailearen» «kriptoahtibo-erabiltzailea» denean, eragiketa «transferentzia» gisa komunikatuko da saltzaile horri



dagokionez eta, gainera, «informatu beharreko txikizkako ordainketa-eragiketa» gisa eskuratzaileri dagokionez; ondore hauetarako, «kriptoaktiboen erabiltzaile» gisa hartuko da eskuratzailera, eranskin honetako D.2 apartatuan xedatzen denari jarraikiz.

4. «Transferentzia»: «informatu beharreko kriptoaktibo» bat «kriptoaktiboen erabiltzaile» baten helbidetik edo kontutik edo bere helbidera edo kontura lekualdatzen duen eragiketa, baldin eta helburu edo kontu hori «informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaileak» «kriptoaktiboen erabiltzaile» horren beraren izenean mantentzen duena ez beste bat baldin bada, hornitzaile horrek eragiketaren unean duen informazioan oinarrituta, ezin duenean zehaztu eragiketa hori «truke-eragiketa» bat denik.

5. «Diru fiduziariora»: jurisdikzio bateko diru ofiziala, jurisdikzio horrek edo hark izendatutako «banku zentralak» edo diru-agintaritzak jaulkitzen duena, eta txanpon edo billete fisikotan edo hainbat modu digitaletako dirutan adierazten dena. Termino horren barruan sartzen dira banku-erreserbak eta «banku zentralen diru digitalak» ere, baita banku komertzial baten dirua eta diru elektronikoko produktuak ere («ditu elektronikoa» barne).

#### **D. Informazioa jakinarazteko betebeharra duen erabiltzailea.**

1. «Informazioa jakinarazteko betebeharra duen erabiltzailea»: «Informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona» bat den «kriptoaktibo-erabiltzailea», Espainian, Europar Batasuneko kide den beste Estatu batean edo «informazioa emateko konpromisoa duen jurisdikzio» batean egoitza duena.

2. «Kriptoaktiboen erabiltzailea»: «informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile» baten bezeroa den pertsona fisikoa edo «entitate», «informazioa jakinarazteko betebeharra duten eragiketak» egiteko. Pertsona fisiko edo «entitate» bat, «finantza-erakundea» edo «informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzailea» ez dena, beste pertsona fisiko edo «entitate» baten onurarako edo haren kontura jarduten duena «kriptoaktiboen erabiltzaile gisa» – ordezkari, zaintzaile, izendatutako agente, izenpetzaile, inbertsio-aholkulari edo bitartekari gisa, ez da hartuko «kriptoaktiboen erabiltzailetzat»; bai, ordea, beste pertsona fisiko edo «entitate» hori.

«Informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile» batek merkatari baten kontura edo haren izenean «informazioa jakinarazteko betebeharra duten txikizkako ordainketa-eragiketak» egiten dituen zerbitzu bat ematen duenean, «informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaileak», «informazioa jakinarazteko betebeharra duten txikizkako ordainketa-eragiketa» horietan, merkatariaren bezeroa ere «kriptoaktiboen erabiltzailetzat» hartuko du eragiketa horiei dagokienez, baldin eta «informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzailea» behartuta baldin badago bezero horren nortasuna egiaztatzen «informazioa jakinarazteko betebeharra duten txikizkako ordainketa-eragiketa» dela bide, Espainian bete beharrekoak dituen funtsen eta kriptoaktiboen transferentziei dagokien informazioari buruzko arauen eta kapitalak zurtzearen aurkako arauen arabera.

3. «Kriptoaktiboen erabiltzaile den pertsona fisikoa»: «kriptoaktiboen erabiltzailea», pertsona fisiko bat dena.



4. «Kriptoaktiboen erabiltzaile den lehendik zegoen pertsona fisikoa»: «kriptoaktiboen erabiltzaile den pertsona fisikoa», 2025eko abenduaren 31n zerbitzu-harremana duena «informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzailearekin».
5. «Kriptoaktiboen erabiltzaile den entitatea»: «kriptoaktiboen erabiltzailea», entitate bat dena.
6. «Kriptoaktiboen erabiltzaile den lehendik zegoen entitatea»: «kriptoaktiboen erabiltzaile den entitatea», 2025eko abenduaren 31n zerbitzu-harremana duena «informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzailearekin».
7. «Informazioa jakinarazteko betebeharra duen pertsona»: «egoitza Espainian duen pertsona», «Estatu kide bateko pertsona» edo «informazioa emateko konpromisoa duen jurisdikzio bateko pertsona», «pertsona baztertua» ez dena.
8. «Estatu kide bateko pertsona»: beste edozein estatu kidean estatu horretako legearen arabera bizi den pertsona fisikoa edo entitatea, edo beste edozein estatu kidean bizi den kausatzaile baten jarauntsiko ondasunak. Zentzu horretan, egoitza fiskalik ez duen «entitate» bat –pertsonek sozietate bat, erantzukizun mugatuko pertsonek sozietate bat nahiz antzeko tresna juridiko bat izan– bere benetako administrazio-lekuari dagokion jurisdikzioko egoiliar gisa tratatuko da.
9. «Egoitza Espainian duen pertsona»: Espainian egoitza duen pertsona fisikoa edo «entitatea», Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legean xedatutakoaren arabera, bai eta Espainian egoitza duen kausatzaile baten jarauntsiko ondasunak ere, aipatutako baldintzetan. Zentzu horretan, egoitza fiskalik ez duen «entitate» bat –pertsonek sozietate bat, erantzukizun mugatuko pertsonek sozietate bat nahiz antzeko tresna juridiko bat izan– Espainiako egoiliar gisa tratatuko da, haren benetako administrazio-lekua Espainian baldin badago.
10. «Estatu kide bateko pertsona»: beste edozein estatu kidean estatu horretako legearen arabera bizi den pertsona fisikoa edo entitatea, edo beste edozein estatu kidean bizi den kausatzaile baten jarauntsiko ondasunak. Zentzu horretan, egoitza fiskalik ez duen «entitate» bat –pertsonek sozietate bat, erantzukizun mugatuko pertsonek sozietate bat nahiz antzeko tresna juridiko bat izan– bere benetako administrazio-lekuari dagokion jurisdikzioko egoiliar gisa tratatuko da.
11. «Informazioa emateko konpromisoa duen jurisdikzioa»: informazioa automatikoki trukatzeari buruzko Agintari Eskudunen arteko Alde Anitzeko Akordioak –kriptoaktiboek buruzko informazioa trukatzeko esparruarekin bat datorrena– ondorioak izan dituen jurisdikzioa; Europar Batasunarekin hitzarmena egin duen jurisdikzioa, zeinaren arabera jurisdikzioak errege dekretu honen 8. Artikuluan zehazten den informazioa eman behar baituen; edo Espainiarekin hitzarmena egin duen jurisdikzioa, zeinaren arabera jurisdikzioak errege dekretu honen 8. Artikuluan zehazten den informazioa eman behar baituen. Jurisdikzio horiekin noranzko bietako informazio-trukea dago.
12. «Kontrola egiten duten pertsonak»: «entitate» bat kontrolatzen duten pertsona fisikoak. Fideikomiso baten kasuan (atzerriko *trust* bat), fideikomisogilea edo fideikomisogileak, fiduziariora edo fiduziariorak, babeslea edo babesleak (halakorik





balego), onuraduna edo onuradunak edo onuradun-kategoria bat edo hainbat, eta fideikomisoaren gaineko benetako kontrola duen pertsona edo pertsona fisiko oro. Fideikomisoa ez den beste harreman juridiko baten kasuan, eginkizun baliokideak edo antzekoak betetzen dituzten pertsonak. Ondore horietarako, «kontrola egiten duten pertsonak» terminoa interpretatu behar da kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluan eta kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen Erregelamendua onesten duen maiatzaren 5eko 304/2014 Errege Dekretuaren 8 eta 9.5 artikuluetan xedatzen denaren eta ELGAK kriptoa aktiboetarako buruzko informazio-trukearen Esparruari egindako lruzkinen arabera.

13. «Entitate aktiboa»: honako irizpide hauetakoren bat betetzen duen edozein «entitate»:

a) «Entitateak» aurreko urte naturalean eskuratu duen errenta gordinaren % 50 baino gutxiago errenta pasiboa da, eta «entitateak» aurreko urte naturalean zituen aktiboaren % 50 baino gutxiago errenta pasiboa sortzen duten aktiboak dira, edo horiek edukitzearen helburua errenta pasiboa sortzea da.

b) «Entitatearen» jarduerak, funtsean, dira «finantza-erakunde» bati dagokiona ez den jarduera ekonomiko bat garatzen duen filial baten edo hainbaten zirkulazioan dauden akzioak edukitzea (osorik edo partzialki), edo filial horiei zerbitzuak edo finantzazioa ematea; edonola ere, «entitate» bat ez da aktibotzat hartuko inbertsio-funts gisa jarduten badu (edo aurkezten bada) –hala nola inbertsio-funts pribatu; arrisku-kapitaleko funts; besteren finantzazioa duen erosketa-funts gisa–, edo inbertsio-tresna gisa jarduten badu, sozietateak eskuratzeko edo finantzatzeko eta ondoren, inbertsio-xedeekin, haien aktibo finkoan partaidetza mantentzeko helburuz.

c) «Entitateak» oraindik ez du jarduera ekonomikorik, eta aurrez ere ez du izan, baina aktiboetan kapitala inbertitzen du, «finantza-erakunde» bati dagokiona ez den jarduera bat garatzeko asmoz, baldin eta «entitateak» ezin badio salbuespen horri heldu, hasierako eraketatik zenbatzen hasita, 24 hilabeteko epea igaro ondoren.

d) «Entitatea» ez da «finantza-erakundea» izan azkeneko bost urteetan, eta bere aktiboak kitatzeko eta berrantolatzeko prozesuan dago, «finantza-erakunde» bati dagokiona ez den jarduera batekin jarraitze edo era horretako jarduera bat berrabiarazte aldera.

e) «Entitatearen» jarduera nagusia da «finantza-erakundeak» ez diren «entitate lotetsiekin» egindako eragiketak edo haien izenean egindakoak finantzatzea eta estaldura ematea, eta «entitateak» ez dio finantzazio- edo estaldura-zerbitzurik ematen «entitate lotetsia» ez den beste ezein «entitateri», baldin eta era horretako «entitate lotetsien» edozein talderen jarduera ekonomiko nagusia «finantza-erakunde» bati dagokiona ez bada.

f) «Entitateak» honako baldintza hauek guztiak betetzen ditu:

1) Egoitza fiskalaren lurraldean kokatuta dago eta han jarduten du, erlijio-, ongintza-, zientzia-, arte-, kultura-, kirol- edo hezkuntza-helburuekin soilik; edo bere egoitza-jurisdikzioan kokatuta dago eta han jarduten du, erakunde profesional, interes komertzialak sustatzeko elkarte, merkataritza-ganbera, sindikatu, nekazaritza- edo



baratze-erakunde, elkarte zibiko edo soil-soilik gizarte-ongizatea sustatzera bideratutako erakunde gisa.

2) Bere egoitza-jurisdikzioan, salbuetsita dago errentaren gaineko zergatik.

3) Ez du bere errentaren edo aktiboen egitezko onuradun edo jabe diren akziodun edo bazkiderik.

4) «Entitatearen» egoitza-jurisdikzioko legeria aplikagarriak edo entitatearen eraketa-agiriek eragotzi egiten dute «entitatearen» errentak edo aktiboak partikularrei edo ongintzakoak ez diren entitateei banatzen, edo haien onurarako erabiltzen, «entitatearen» ongintza-jarduera garatzeko, edo jasotako zerbitzuengatik zentzuzko kontraprestazio baten ordainketa gisa, edo «erakundeak» eskuratutako jabetzengatik merkatuko bidezko prezioa izango litzatekeenaren ordainketa gisa.

5) «Entitatearen» egoitza-jurisdikzioko legeria aplikagarriak edo entitatearen eraketa-agiriek exijitzen dute, «entitatea» likidatu edo desegin ondoren, bere aktibo guztiak «estatu-entitatea» batera edo irabazi asmorik gabeko erakunde batera bana daitezela, edo «entitatearen» egoitza-jurisdikzioaren administrazioa edo jurisdikzio horretako barruti politiko batera bidera daitezela.

## **E. Pertsona baztertua.**

1. «Pertsona baztertua»: hauetako edozein:

a) «Entitate» bat, zeinaren sozietate-kapitala balore-merkatu ezagun batean edo hainbatetan modu erregularrean negoziatzen baiten, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren VIII. Sekzioko D.2 apartatuari dagokionez ezartzen diren baldintza berberetan.

b) a) hizkian deskribatzen den «entitate» baten «entitate lotetsia» den «entitatea»

c) «Estatu-entitatea».

d) «Nazioarteko erakundea».

e) «Banku zentrala».

f) «Finantza-erakundea», E.5.b) apartatuan deskribatzen den «inbertsio-entitatea» ez dena.

2. «Finantza-erakundea»: «zaintza-erakundea», «gordailu-erakundea», «inbertsio-entitatea» edo «aseguru-konpainia espezifikoa».

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko A.3 apartatuan «finantza erakundea»-ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.



3. «Zaintza-erakundea»: bere jarduera ekonomikoaren zati garrantzitsu gisa, hirugarrenen kontura «finantza-aktiboak» dituen «entitate» oro. «Entitate» batek, bere jarduera ekonomikoaren zati garrantzitsu gisa, hirugarrenen kontura «finantza-aktiboak» ditu, «finantza-aktiboak» edukitzeari eta horrekin lotutako finantza-zerbitzuei egotz dakiekeen bere errenta gordina «entitateak» ondoren adierazten diren denbora-aldietako laburrenean eskuratutako errenta gordinaren % 20koa edo handiagoa denean: zehaztapena egiten den urtearen aurreko abenduaren 31n (edo urte naturalarekin bat ez datorren kontabilitate-ekitaldi bateko azken egunean) amaitzen den hiru urteko aldia, edo «entitateak» iraun duen denbora.

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko A.4 apartatuan «zaintza erakundea»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

4. «Gordailu-erakundea»: honako jarduera hauetakoren bat egiten duen «entitate» oro:

a) Gordailuak onartzen ditu bere banku-jarduera arruntean edo antzekoan b) «Banku zentralen diru digitalak» edo «diru elektronikoa» mantentzen duen bezeroen mesedetan.

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko A.5 apartatuan «gordailu erakundea»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

5. «Inbertsio-entitatea»: honako ezaugarri hauek betetzen dituen «entitate» oro:

a) Bere jarduera ekonomiko nagusia bezero baten kontura edo haren izenean honako jarduera edo eragiketa hauetakoren bat edo hainbat egitea da:

1) Eragiketak diru-merkatuko tresnekin (txekeak, letrak, gordailu-ziurtagiriak, deribatuak, etab.); dibisa-trukeak, kanbio- eta diru-merkatuetako tresnak eta indizeetan oinarritutako tresnak; balio negoziagarriak, edo lehengaien etorkizuneko negoziazioa.

2) Inbertsio kolektibo eta indibidualen kudeaketa.

3) Hirugarrenen izenean «finantza-aktiboak», dirua edo «informazioa jakinarazteko betebeharra duten kriptoaaktiboak» kudeatzea, administratzea edo inbertitzea, edo

b) Bere errenta gordina «finantza-aktiboetan» edo «informazioa jakinarazteko betebeharra duten kriptoaaktiboetan» inbertitzeari, berrinbertitzeari edo negoziatzeari egotz dakioke batez ere, «entitatea» kudeatzen badu «gordailu-erakundea», «zaintza-erakundea», «aseguru-konpainia espezifiko» edo E.5.a) apartatuan deskribatutako «inbertsio-entitatea» den beste «entitate» batek.

«Entitate» baten jarduera ekonomiko nagusia E.5.a) apartatuan deskribatzen diren jardueretako bat edo hainbat direla, edo bere errenta gordina, E.5.b) apartatuaren ondoretarako, batez ere, «finantza-aktiboetan» edo «informazioa jakinarazteko betebeharra duten kriptoaaktiboetan» inbertitzeari, berrinbertitzeari edo negoziatzeari



egotz dakiokeela ulertuko da, aipatutako jardueri egotz dakiekeen «entitatearen» errenta gordina «entitateak» ondoren adierazten diren denbora-aldietako laburrenean eskuratutako errenta gordinaren % 50ekoa edo handiagoa denean: zehaztapena egiten den urtearen aurreko abenduaren 31n amaitzen den hiru urteko aldia, edo «entitateak» iraun duen denbora.

E.5.a) apartatuko 3. zenbakiaren ondoretarako, “hirugarrenen izenean «finantza-aktiboak», dirua edo «informazioa jakinarazteko betebeharrak duten kriptoaktiboak» kudeatzeko, administratzeko edo inbertitzeko beste modu batzuk” adierazpidearen barruan ez da sartzen bezeroen kontura edo haien izenean «truke-eragiketak» egitea eskatzen duten zerbitzuak ematea. «Inbertsio-entitatea» terminoaren barruan ez dira sartzen D.13 apartatuko b) eta e) hizkietan adierazten diren irizpideetakoren bat betetzeagatik «entitate aktibotzat» hartzen diren «entitateak».

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharrak ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. sekzioko A.6 apartatuan «inbertsio entitatea»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3.2 artikuluan “finantza entitatea”ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat (zuzentarau hori kapitalak zuzentzeko edo terrorismoa finantzatzeko sistema finantzarioaren erabilera prebenitzeari buruzkoa da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzeaz gainera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/EE Zuzentaraua eta Batzordearen 2006/70/EE Zuzentaraua indargabetzen ditu), eta Nazioarteko Finantzen Ekintza Taldearen Gomendioetan antzeko eran jasotzen den definizioarekin bat.

6. «Aseguru-konpainia espezifikotzat» hartuko da «eskudiruzko balioa duen aseguru-kontratu» bat edo «urterokoen kontratu» bat eskaintzen duen edo kontratu horiei dagozkien ordainketak egitera behartuta dagoen eta aseguru-konpainia bat (aseguru-konpainia baten kontrol-sozietatea) den «entitate» oro.

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharrak ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko A.8 apartatuan «aseguru-konpainia espezifikoa»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

7. «Estatu-entitatea»: Lurralde bateko gobernua, edo lurralde bateko barruti politiko orotakoa (zalantzak saiheste aldera, horren barruan sartzen dira Estatu federatuak, probintziak, konderriak edo udalerrak), edo lurralde bati edo aipatutako barrutietakoren bati osotasunean dagokion edozein organismo edo agentzia instituzional. Kategoria horren barruan sartzen dira lurralde bateko kideak, entitate kontrolatuak eta barruti politikoak.

Aurreko paragrafoan xedatzen denaren ondoretarako:

a) Lurralde bateko «kideetat» ulertuko da: edozein pertsona, erakunde, agentzia, departamentu, funts, organismo edo bestelako organo, edozein dela ere haren izena, lurralde bateko estatu-agintaritzaren dena. Estatu-agintaritzaren diru-sarrera garbiak haren



kontuan edo lurraldearen beste kontu batzuetan ordainduko dira, eta ezin izango da zatirik kontabilizatu partikular baten onurarako. Ez dira kideztat hartuko monarkak, funtzionarioak edo administratzaileak, maila pertsonalean edo pribatuan jarduten dutenean.

b) «Entitate kontrolatutzat» ulertuko da: maila formalean lurraldeaz bestelakoa den «entitate» bat, edo, beste zentzuren batean, aparteko entitate juridikoa dena, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

1) «Entitatea» «estatu-entitate» baten edo hainbaten kontrolpean egotea edo haren (edo haien) jabetzakoa izatea osotasunean, zuzenean edo entitate kontrolatu baten edo hainbaten bitartez.

2) «Entitatearen» diru-sarrera garbiak haren kontuan edo «estatu-entitate» baten edo hainbaten kontuetan ordaintzea, ezin izango delarik zatirik kontabilizatu partikular baten onurarako.

3) «Entitatea» desegiten den unean, haren aktiboak «estatu-entitate» bati edo hainbati esleitzea.

Ez da ulertuko diru-sarrerak partikularren onurarako direnik, haiek programa publiko baten onuradunak baldin badira, eta programaren jarduerak jende guztiarentzako eta guztien ongizaterako egiten badira, edo administrazioaren instantziaren baten kudeaketarekin zerikusia badute. Edonola ere, diru-sarrerak partikularren onurarako direla ulertuko da estatu-entitate bat partikularrei finantza-zerbitzuak eskaintzen dizkien jarduera komertzial bat –banku-jarduera komertzial bat, esaterako– egiteko erabiltzearen ondorio baldin badira.

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko B.2 apartatuan «estatu entitatea»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

8. «Nazioarteko erakundea»: bere osotasunean erakundearena den nazioarteko erakunde edo organismo edo agentzia instituzional oro. Kategoria honen barruan sartuko dira gobernuarteko erakunde guztiak, batez ere gobernuez osatuta dauden nazioz gaindikoak barne, lurraldearekin, funtsean, egoitza-akordio bat edo antzerako akordioen bat dutenak, eta haien diru-sarrerak partikularren onurarako bideratzen ez direnak.

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko B.3 apartatuan «nazioarteko erakundea»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

9. «Finantza-aktiboak»: balore higigarriak (adibidez, partaidetzak sozietateen kapitalean; partaidetzak bazkide ugari dituzten edo balore-merkatu ezagunetan kotizatzen duten pertsonen sozietateen edo fideikomisoen –atzerriko *trustak*– kapitalean edo irabazietan; zor-agiriak, bonuak eta obligazioak eta bestelako zor-



tituluak), partaidetzak pertsonen sozietateetan, lehengaiak, *swapak* (adibidez, interes-tasen *swapak*, dibisen *swapak*, oinarrizko *swapak*, gehieneko edo gutxieneko interes-tasei buruzko akordioak, lehengaien *swapak*, akzioekin lotutako *swapak*, akzio-indizeen *swapak* eta antzerako akordioak), «aseguru-kontratuak» edo «urterokoen kontratuak», edo balore higigarri bati, «informatu beharreko kriptoa bati», pertsonen sozietate bateko partaidetzari, lehengai bati, *swap* bati, «aseguru-kontratu» bati edo «urterokoen kontratu bati» lotutako edozein tresna (etorkizuneko edo eperako aukerak eta kontratuak barne). «Finantza-aktiboen» terminoaren barruan ez da sartuko zor bati lotuta ez dagoen zuzeneko interesa ondasun higiezinetan.

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko A.7 apartatuan «finantza-aktiboa»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

10. «Partaidetza kapitalean»: finantza-erakundeak diren pertsonen sozietateen kasuan, partaidetza pertsonen sozietatearen kapitalean zein irabazietan. «Finantza-erakunde» izaera duen fideikomiso baten kasuan (atzerriko *trust* bat), ulertuko da «kapitalean partaidetza» duela fideikomiso osoaren edo zati baten onuraduntzat edo fideikomisogiletzat jotzen den edozein pertsonak, edo fideikomisoaren gainean azken kontrol eraginkorra egiten duen beste edozein pertsona fisikok, baita kontrol- edo jabetza-kate baten bitartez ere. «Informazioa jakinarazteko betebeharra duten pertsonak» fideikomiso baten onuraduntzat hartuko dira, baldin eta nahitaezko banaketa jasotzeko eskubidea badute, zuzenean edo zeharka (adibidez, izendatutako agente baten bitartez), edo, zuzenean edo zeharka, fideikomisoaren kontura, hautazko banaketa bat jaso badezakete.

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko C.4 apartatuan «partaidetza kapitalean» terminoari buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

11. «Aseguru-kontratu»: kontratu bat («urterokoen kontratu» ez dena), zeinaren arabera jaulkitzaileak adosten baitu zenbateko bat ordaintzea, heriotza, gaixotasuna, istripua edo ondare-erantzukizuna edo -arriskua eragingo duen kontingentzia espezifikoren bat gertatuz gero.

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko C.5 apartatuan «aseguru-kontratu»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

12. «Urterokoen kontratu»: kontratu bat, zeinaren arabera jaulkitzaileak adosten baitu denbora-aldi jakin batean ordainketak egitea, osorik edo zati batean, pertsona-fisiko baten edo hainbaten bizi-itxaropenaren arabera. Termino horren barruan sartzen dira, zehazki, bizitzaren alorrean jarduteko baimenduta dauden aseguru-erakundeek eskaintzen dituzten aldi baterako edo bizitza osorako errentak.



Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko C.6 apartatuan «urterokoen aseguru»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

13. «Eskudiruzko balioa duen aseguru-kontratua»: «Eskudiruzko balioa duen» «aseguru-kontratua» (bi aseguru-konpainiaren arteko berraseguru-kontratua ez dena).

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko C.7 apartatuan «eskudiruzko balioa duen aseguru-kontratua»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.

14. «Eskudiruzko balioa»: honako bi zenbateko hauetako handiena: i) aseguru-hartzaileak kontratuaren erreskatearen edo suntsiarazpenaren kasuan jasotzeko eskubidea duena (polizaren gaineko erreskatearen edo maileguaren ondoriozko zigor gisa izan dezakeen murrizketa zenbatu gabe zehaztuta), eta ii) aseguru-hartzaileak maileguan eska dezakeena, kontratuaren arabera edo kontratuarekin lotuta.

«Eskudiruzko balioa» kontzeptuak ez ditu barne hartuko «aseguru-kontratu» bategatik ordaindu beharreko zenbatekoak:

a) bizi-aseguruko kontratu baten bitartez aseguraturako pertsona fisiko baten heriotzogatik soilik;

b) kalte pertsonalengatiko edo gaixotasunagatiko prestazio gisa edo aseguraturako arriskua gauzatzearen ondoriozko galera ekonomikoagatiko kalte-ordain prestazio gisa;

c) kontratua indargabetzeagatik edo suntsiarazteagatik, kontratuaren indarraldian zehar arriskuarekiko esposizioa murrizteagatik edo, jakinarazpenaren zuzenketa baten edo antzerako akatsen baten ondorioz, prima berriro kalkulatu delako, «aseguru-kontratu» baten truke (urterokoen kontratua edo inbertsio bati lotutako bizi-aseguru ez dena) aurrez ordaindutako prima baten itzulketa gisa;

d) polizaren hartzailearen dibidendu gisa (kontratua suntsiarazten denean ordaindu beharrekoak ez direnak), baldin eta dibidenduak «aseguru-kontratu» bati badagozkio, zeinetan ordainduko diren prestazio bakarrak b) hizkian deskribatutakoak diren; edo

e) aurreratutako prima baten itzulketa edo «aseguru-kontratu» batengatiko primagordailua, zeinetan prima gutxienez urteroko aldizkakotasunarekin ordaindu beharrekoak den, baldin eta aurreratutako primaren zenbatekoa edo prima-gordailua kontratuaren arabera ordaindu beharreko hurrengo urteko prima baino handiagoa ez bada.

Azpiapartatu hau interpretatuko da finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta elkarlaguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren Eranskinak VIII. Sekzioko C.8 apartatuan «eskudiruzko balioa»ri buruz jasotzen duen definizioarekin bat.



## F. Hainbat xedapen.

1. «Bezeroarekiko egoki jarduteko prozedurak»: «informazioa ematera behartutako kriptoaktibo zerbitzuen hornitzaile» batek bezeroari dagokionez egoki jarduteko jarraitu beharreko prozedurak, Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legearekin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauarekin bat (zuzentarau hori kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko sistema finantzarioaren erabilera prebenitzeari buruzkoa da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzeaz gainera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/EE Zuzentaraua eta Batzordearen 2006/70/EE Zuzentaraua indargabetzen ditu), edo «informazioa ematera behartutako kriptoaktibon zerbitzuen hornitzaile» horri lotuta dauden antzeko betekizunak.
2. «Entitatea»: pertsona juridikoa edo tresna juridikoa, hala nola kapital-sozietate bat, pertsonen sozietate bat, fideikomiso bat (atzerriko *trust* bat) edo fundazio bat.
3. «Entitate» bat beste «entitate» bati lotuta egongo da bietako batek bestea kontrolatzen badu edo biak kontrol komun baten mende badaude. Ondorio horietarako, kontrolaren barruan sartzen da «entitate» baten kapitalean % 50etik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetza izatea eta «entitate» horretan boto eskubideen % 50 baino gehiago edukitzea.
4. «Sukurtsala»: kontzeptu hau zehaztuko da establezimendu iraunkorrei buruzko araudia aplikatuta; araudi hori honako lege hauetan jasota dago: Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legean, eta martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bateginean.
5. «Agintari eskudunen artean indarrean dagoen kualifikazio akordioa»: estatu kide bateko eta Batasuneko ez den jurisdikzio bateko agintari eskudunen arteko akordioa, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren VI. eranskineko II. sekzioaren B apartatua zehaztutako informazio truke automatikoa exijitzen duena (2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa, 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena), zuzentarau horren 8 bis quinquies artikuluko 11. apartatuaren arabera adostutako betearazpen egintza batetik ondorioztatua.
6. «Batasuneko ez den jurisdikzio kualifikatua»: Batasunetik kanpoko jurisdikzioa, zeinak "agintari eskudunen arteko kualifikazio akordio indardun" bat sinatu baitu Batasunetik kanpoko lurraldeak argitaratutako zerrendaren arabera informatzera behartutako jurisdikzio gisa ageri diren estatu kide guztietako agintaritza eskudunekin.
7. «IFZa»: zergadun baten identifikazio fiskaleko zenbakia, edo, halakorik egon ezean, haren baliokide funtzionala. Agintaritza eskudun batek zergadunak identifikatzeko erabiltzen duen edozein zenbaki edo kode iznago da IFZa.
8. «Identifikazio zerbitzua»: Estatu kide batek edo Europar Batasunak edo jurisdikzio batek «informazioa ematera behartutako kriptoaktibo-zerbitzuen hornitzaile» baten eskura dohain jartzen duen prozesu elektronikoa «kriptoaktiboen erabiltzaile» baten nortasuna eta egoitza fiskala zehazteko.



